

Jakingarriak

Jolas kooperatiboa



Argitaratzailea:

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien
Fakultatea

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Erredakzioa:

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriatza
Tfnua: 943-714157
Faxa: 943-714032
Helbide elektronikoa: liburutegia@huhezi.edu

Zuzendaritza:

Nerea Alzola eta Elena Lopez de Arana

Erredakzio Kontseilua:

Juanjo Otaño, Nerea Alzola eta Elena Lopez de Arana

Erredakzio Idazkaria:

Agurtzane Bikuña

Itzultzailea:

Edorta Agirre

Euskara zuzentzailea:

Asier Irizar

Diseinua:

Alex Azkarate

Inprimategia:

Antza inprimategia

L.G.: SS-981/92

ISSN 1697-6215

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

4 Liburu berrien albisteak

7 Esan dute

GAI MONOGRAFIKOA

Jolas kooperatiboa

11 Sarrera

12 Juanjo Otaño

Jolastu, hasi eta ikasi

20 Maite Garaigordobil

Jolastea, kooperatzea eta sortzea: esku-hartze
psikopedagogikoko eredu baten hiru ardatz
estruktural

38 Pascal Deru

Jolas kooperatiboak

42 Saioa Uriarte

Jolasten ikasten dugu

46 Josune Igoa

Hezitzaileekin jolastea

BALIABIDEAK

50 Jolas kooperatiboen etxea



Soler, J. eta Mercé Conangla, M. (2008).
Ámame para que me pueda ir.
Barcelona: RBA.

Gurasoentzat zein seme-alabentzat idatzitako liburua. Azken batean, Mafaldak amari ziotson moduan, "biok doktoratu ginen egun berean", bata ama bezala, eta bestea alaba gisa. Seme-alaben askatasunaren gorai-pamena da —"Trataremos de cómo amar mejor a nuestros hijos para que sean capaces de irse con amor. Os proponemos construir un amor que no les aprisione, sino que les libere, un amor que les permita ser ellos mismos sin depender de nosotros"—; eta baita gurasoen askatasunaren gorai-pamena, pertsona bezala errealtizatzeko eskubidea aldarrikatuz —"Nuestra principal tarea como padres es nuestra propia construcción personal. Si no tenemos claro a dónde vamos, seguro que no vamos a obrar con acierto. Desorientados los padres... desorientados e indefensos los hijos —".

Guraso izatea prozesua da, eginez egiten dena: guraso egiten gara seme-alabak ondo maite ditugun heinean; izan ere, egileek dioten bezala, "tener hijos no lo convierte a uno en padre o madre, del mismo modo que tener un piano no lo vuelve a uno pianista".

Liburuan bidaia bat proposatzen zaigu hausnartzeko eta nork bere burua ezagutzeko. Bidaia horrek aukera emango digu hobetzeko pertsona gisa eta gurasoekiko harremanetan —irakurleak seme-alabak badira— edo seme-alabekikoetan —irakurleak gurasoak badira—.

Beti ere abiapuntu hartuta haurren garapena askatasunerako bidea dela, bera izatera bultzatuko duen proiektu bizia. Eta jakinik gurasoek ere beren proiektua garatu behar dutela, banakakoarena eta bikotearena; seme-alabak ez dituztelako hezten gure hitzek, gure ekintzek baizik.

Liburuaren izenburua hitz-atzeko poesiaren hasiera da, eta argi eta sakon laburbiltzen du lanaren mezua:

*Ámame para que me pueda ir
para que aprenda a ser yo mismo
separado de ti.*

Juanjo Otaño
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Heesen, B. (2008).
Pequeños, pero valientes.
Barcelona: Graó.

Liburu honetan hainbat istorio labur biltzen dira, umorez betetako narrazioak, haurrekin eta haurrentzako idatziak, haien elkarrizketa eta pentsatzeko ohitura lantzearen.

Heesen idazleak denbora luzea igaro du haurrekin solasean, filosofatzen eta haien galderei bueltak ematen. Hortik sortu zuen material pedagogiko erakargarri hau: baliabide soilak eta aplikagarriak eskoletan, pentsatzeko saio laburren euskarri moduan erabili daitezke-enak.

Haurrekin filosofatzen, haurrekin hausnartzen, iker-tzen. Batzuek pentsatuko dute ariketa hau jolas hutsa dela, baina jolas hau pentsamendu kritikorearen entrenamendu bihurtzen da: galdetzeko ausardia, ikuspegi desberdinak izateko trebetasuna, norberari buruzko hausnarketa egiteko gogoia, besteen iritzia jasotzeko jakin-mina, gure pentsamenduen mugekin kontzientzia eta beste hainbat gai lantzeko aukera ematen du. Gure ustez gizar-tean eta eskolan ezinbestekoak dira hausnarketarako guneak, eta, zalantzarik gabe, edozein laguntza izan daiteke ona helburua lortuko bada.

Zer egiten dugu hezitzaileok haurren galdera "dese-gokiekin"? Non dago aitaxo? Txoriek pentsatzen al dute? Zer edo zer ahaztuz gero, betiko ahazten al da? Bizitza osoan hazten ari gara? Zooa museo bat da? Posible da goibel eta pozik egotea aldi berean? Nola joan da zerura izeba, kutxan baldin badago?

Ausartzen gara helduok haurren galderak jasotzen eta murgiltzen pentsatzeko bide zabal horietan?

Liburua oso irakurteraza eta sinplea da, eta hainbat pista edo ideia eman diezaike pentsatzeko ohitura eta trebetasuna landu nahi dituenari.

Nerea Alzola Maiztegi
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Vega, S. (2008).
Ciencia 0-3: Laboratorios de Ciencias en la Escuela Infantil.
Barcelona: Graó

Idea nagusi eta garrantzitsu batek zeharkatzen eta antolatzen du liburu hau: Zientziaren ikaskuntza txiki-txikitik hasi eta bultzatu behar dugu.

Jakina, ezagutza zientifikoa hori ez da izango Unibertsitatean eskaintzen denaren antzekoa, ezta Batxilergoan ematen denaren parekoa ere; eta Lehen Hezkuntzan garatzen denarekin antzekotasunak eduki arren, harekiko ere desberdina dela esan dezakegu. Zientziaren garapenak Haur Hezkuntzan izaera propioa duela ikusarazten digu liburuaren egileak; lan honen ardatza, izan ere, zera da: umeekin eta ezagutzen dituzten objektuekin, bereganatzen dituzten datu eta informazioekin, errealtateari buruz osatzen eta eraikitzen doazen ideia eta ikuskerekin... horrekin guztiarekin, elkarrekintzak ahalbidetzea, jokoaren eta esperimentazioaren bidez, kontzeptu desberdinen hazia eriten joateko.

Baina, zeintzuk dira umeei Zientzia-gelan lantzeko egiten diren proposamenak? Horretaz hiru lerro edo zutabe antzeman daitezke liburuan. Lehenengo, dagoeneko zirriboratu dena, umeei dakitenetik, beraieki dituzten ezagutzetatik, abiatzea. Bigarren proposamena ezaguna dugu eta adin hauetarako guztiz onartua: lana era integralean edo osotasunez egitea; beste era batera esanda, elkarren artean erlazionatzea eta indartzea mugimendua eskatzen duten jarduerak, hizkuntzaren erabilera eta kognizio-mailako prozedurak. Eta aurreko biei lotuta, hirugarrenak, alde batetik, erreferentzia egiten dio jarraitu behar den prozesuari (bizipenetatik eta sentsazioetatik hasita, errealtatea aztertu, gero kontzeptualizazio-mailara heltzeko); eta bestetik, azpimarratu egiten ditu garatu behar diren jarduerak (hots, behaketa, esperimentazioa, ikerketa, sailkatzea, dedukzioa...).

Liburuaren lehenengo zatian era teorikoan aurkeztu eta landutakoa hainbat adibide praktikotan islatzen da bigarrenean —Disoluzioak eta Nahasteak gaia hartuta—. Egileak era erraz eta argian azaltzen digu nola landu gelan umeei gai honen arlo desberdinak; horretarako, arestian aipatutako prozesuak garatzen ditu:

behaketa, esperimentazioa, dedukzioa...

Liburua lan esperimental desberdinen deskribapenarekin aberasten da, ikasleek beraien jarduerak azaltzeko egindako elkarrizketekin, garatutako behakete-kin, ateratako ondorioekin... Era berean, argazkien bidez, garatutako prozesuen eta talde-lanen ebidentziak ematen dira; eta, baita lan mota hau aurrera eramateko sintesiak eta laguntza-taula batzuk ere.

Egileak proposatzen dituen egoeren aniztasunak eta material desberdinen erabilpenak —batzuk likidoak (ura, esnea, olio...) eta beste batzuk solidoak (area, gatza, arrosa, Cola Cacao...)— ahalbidetzen du gai honen oinarriko hainbat kontzeptu lantzea, hala nola: disoluzioak/nahasteak, heterogeneoak/homogeneoak, disoluzio aseak, beroaren eragina, biskositatea, nahaskortasuna... Bukatzeko, uraren inguruan jarraituz, egileak lan proposamen bat erakutsi eta garatzen du Flotazioaren gaiak; berau adibide ona eta erabilgarria izan daiteke edozein irakaslerentzat, beste gai batera (Argia, Landareak, Gasak, Elikagaiak...) eramateko eta aplikatzeko.

Aurkeztutako adibideak eta ereduak, ulertzeko errazak eta gelaratzeko modukoak izateaz gain, egilearen pentsamoldearekin ere bat datozen, berak horrela dioelako: "Prozesu esperimental batean, gauza garrantzitsuenetariko bat aurkituzak egiteko aukera asko ematea eta frogaketa ugari egiteko elementu desberdinak eskaintzea da. Azken finean, umeei inguruan duten mundua barne-barnetik ezagutzea nahi dugu" (25. or.).

Garrantzi handiko beste gai bat ere ematen da aditzera aipatutako liburuaren bi atal nagusi horien artean —bata teorikoagoa eta bestea aplikagarriagoa—. Irakaslearen jardura aztertzen duena, alegia. Gaia galderen bidez gauzatzen da; esate baterako: Noiz hartu behar du parte irakasleak? Nola hartu behar du parte irakasleak?...

Ez dira erantzuteko galdera errazak kontuan hartuz ikasleak, egoerak, taldeak... desberdinak direla. Dena den, planteatutako galderei erantzun aproposa emateko, egileak gako batzuk eskaintzen dizkigu; horiek, halaber, honako abiapuntua dute: taldea ezagutzea eta ume bakoitzarekin lotura afektibo eraginkorra sortzea, gelan afektibotasun- eta segurtasun-giroa lortzeko.

Aurrekoari lotuta, egileak azpimarratzen du oso garrantzitsua dela pentsatzea "zein momentutan izan daitekeen beharrezkoa gure esku-hartzea, motibagarria edo egokia izan dadin" (38. or.) proposatutako esperimentu inguruan, eta orobat, hausnartzea bakoitzak irakasle izateko duen moduari buruz.

Proposamen honetan, aipatzeko azkeneko puntua lotuta dago materialen aurkezpen, erabilera eta jasotzeari buruz finkatu eta garatu behar diren arau eta ohi-turekin. Horrekin, saihestu egin nahi da gela kaos bat bihurtzea, eta ikasleentzat lan egiteko testuinguru txukun samar bat eratu, aurretik zehaztutako pauso edo "protokoloari" jarraituz, umeen arteko kolaborazioa eta elkarrekintzak erraztuz...

Liburu honen aurkezpen hau bukatzeko, aproposa iruditu zait egilearen hitz batzuk erabiltzea. Haren esanetan, Zientzia egiteko Haur Hezkuntzan, "profesionalen erronka bat gelan ikasleek beraien adin txikiagatik dituzten zailtasunak gainditzeko era topatzea da, horretarako era askotako aurkikuntza-egoerak asmatuz eta beraiekin ondo pasatzeko baliabideak eskainiz. Hobe da hori esperientziak alde batera uztea baino –zailak iruditzen zaizkigulako edo nahasmen handia sortzen dutelako– (44 or.)... Umeei joko- eta aurkikuntza-sentsazioa gelditu behar zaie... Eta guretzat garrantzitsuena, seguruenez, beraiei aurkikuntza-munduan sartzeko laguntzea izango da" (114 or.).

Eugenio Astigarraga
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Martín García, X. eta Puig Rovira, J.M. (2008).
Las siete competencias básicas para educar en valores.
Barcelona: Graó.

Balioetan oinarritutako hezkuntzaz aritzen garenean gaurko asmakizun bat dela dirudi, baina ez al da betidanik existitu ala? Nik baietz esango nuke.

Balioak pertsonok bizitzari aurre egiteko daukagun iparrorratza dira. Hori dela eta, liburu honetako idazleek esaten duten bezala, irakasle oro, pertsona izateagatik, balioetan hezteko gai gara.

Baina kontuan hartzekoa da balioetan ezin dela nora-ezean hezi. Hezkuntza zentro bakoitzeko irakasle taldeak zehaztu beharko luke zer nolako herritarra nahi eta behar diren etorkizunerako. Horren arabera, zer nolako balioak landuko diren eta zer nolako lanabesak erabiliko diren zehaztuko da. Zergatik? Hori delako bidea ikasleengan zeharka eragiteko ekintza koordinatu baten bidez.

Baina horrekin nahikoa izango litzateke? Ezta pentsatu ere. Idazleek argi eta garbi azaltzen duten moduan, balioak lantzeko ezinbestekoa da lotura afektiboa eraikitzea ikasle eta irakaslearen artean. Zelan erakutsiko diegu ikasleei eurek diseinatutako iparrorratzaren arabera bizitzeko, gu geu agertzen bagara iparrorratz barik bizi garen pertsonak bezala? edota eurekin aritzen garenean, despersonalizatutako teoria hutsetik abiatzen bagara?

Beraz, ukazina da balioetan oinarritzen den hezkuntza pertsonen artean gertatzen den fenomeno dela. Prozesu hori eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da norberak, irakasle bakoitzak, bizitzeko hautatu dituen balioen inguruan hausnartzea, horietaz kontzientzia hartzeko. Behin auto-hausnarketa hori eginda, gainontzeko irakasleekin adostu daiteke etorkizuneko herritarren nolakotasuna, balioen definizioa eta zehaztapena eta lanabesen erabilera.

Lan pertsonal eta talde lan sakon horretarako, liburu honek oinarri teorikoaz gain, hainbat jarduera proposatzen ditu alderdi praktikoa auto-hausnartzaile eta hausnartzaile horretan aritzeko.

Nire ustetan, liburu hau erreminta paregabea da zer nolako hezitzaileak garen eta zer nolako hezitzaileak izan nahi dugun deskubritzeko.

Elena Lopez de Arana
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Esan dute

“ Euskara zaletasunez ikastea, oso urruti dago etorkinen lehentasunetatik. Nor ausartuko da euskarari buruz galdetzen hemen paperik gabe bizi den pertsona bati, lana eta etxea topatzeko oztopoak besterik ez daukanari...? Zer jarrera sortuko dute gizarte autoktonoaren ezauzgarri kulturek etorkinen artean, autoktonoen etorkinekiko jarrera desagokia baldi bada? Zer eskatu dakieke haiei ertzainek, epailek eta medikuek, zerbitzari publikoek erraztasun asko izanda ere, ez badute egiten edo inork egiten behartzen ez baditu? Zer, euskararen egoeraz oso kontzientziatuta dauden zenbait partidutako herri ordezkariak ere ez badute egiten? Nor ausartuko da etorkinei hori eskatzen euskal izena harro daramaten enpresetan hizkuntzaren presentzia benetan eskasa denean?

Barquín, A. eta Ruiz, U. (2009).
Hizkuntzen kudeaketa eskolan.
Tantak, 21 (1), 10-11. orr.

“ El cuerpo se ha convertido en un proyecto (Shilling, 1993 en Sparkes, 1997, p. 87) en el que la apariencia, la forma e incluso el contenido están potencialmente abiertos a la reconstrucción. Numerosas personas en nuestras culturas están comprometidas con su gestión mantenimiento y apariencia según criterios personales y modas sociales, lo que forma parte de la reconstrucción de la propia identidad [...] La reflexión sobre estos aspectos sugiere la necesidad de orientar los proyectos educativos hacia el objetivo del autoconocimientos, de la elección personal, del control voluntario y autorregulado del propio cuerpo y actividad física, en función de intereses personales libremente elegidos y beneficiosos para la salud, entendida ésta en sentido amplio.

Prat, M. eta Gómez, I. (2009).
Educación Física y entorno social.
Influencias y repercusiones
para propuestas curriculares educativas.
Cultura y Educación, 21, 20-21. orr.

A pesar de la presencia del cuerpo en los medios de comunicación, en el imaginario colectivo y en la realidad cotidiana como acabamos de mostrar, sorprende su poca presencia en las propuestas educativas en contexto escolar, a excepción del área curricular de EF y del juego espontáneo en el patio. A pesar de que a la escuela se va con el cuerpo, el cuerpo es el gran ausente en las propuestas escolares.

Es necesario que las propuestas educativas vayan dirigidas a la integridad biopsicosocial de las personas, que den respuesta a las necesidades de movimiento en las diferentes edades, que se supere el mentalismo subyacente en propuestas y tareas habituales escolares y que además, se sea sensible a las necesidades de descanso, actividad, juego y contacto con la naturaleza, no sólo a partir del área de EF sino desde un planteamiento general del resto de las áreas y materias.

Prat, M. eta Gómez, I. (2009).
Educación Física y entorno social.
Influencias y repercusiones
para propuestas curriculares educativas.
Cultura y Educación, 21, 26-27. orr.

“ La magia, en definitiva, nos sitúa más allá de lo predecible y en la necesidad de buscar explicaciones que reconstruyan la cadena de causas y efectos, nos pone en la tesitura de tener que buscar una explicación a lo inexplicable [...] Muchos trucos de magia se apoyan en el conocimiento científico de sus hábiles creadores y, por extraños y paradójicos que parezcan, son perfectamente predecibles y explicables a partir de la ciencia que conocemos [...] Descubrir un truco de magia es un reto al que es difícil resistirse; encontrar la “trampa” proporciona una gran satisfacción y una sensación de triunfo y de querer más. Pero además es una situación con un gran potencial de aprendizaje en la que podemos profundizar en nuestra comprensión de la naturaleza y de las leyes que la rigen.

Gómez, M.A. eta Cañamero, A. (2009).
La ciencia de la magia.
Alambique, 60, 24-25. orr.

Trabajando en el aula el análisis de dibujos animados y ampliando los recursos con imágenes de cómic, películas, documentales, viñetas gráficas, etc., tendríamos de un material que nos permitiría enfocar la asignatura de manera más atractiva para el alumnado, sin pérdida de rigor a la vez que se fomenta el hábito de analizar toda la información que reciben en su vida cotidiana. Nuestro trabajo con dibujos animados deja abiertas las puertas a ello, dados los resultados obtenidos que en general calificamos de positivos, al haber potenciado simultáneamente las alfabetizaciones científica y televisiva.

Vílchez, J.M. eta Perales, F.J. (2009). Física y dibujos animados. Una estrategia para la alfabetización científica (y televisiva) en la educación secundaria. *Alambique*, 60, 61. or.

La mayor inclinación por las prácticas situacionales en Educación Infantil que en primer grado de Primaria podrían tener que ver con las características diferenciales que se atribuye a cada una de esas etapas escolares. En general se considera que la etapa infantil ha de ser menos exigente en relación con la enseñanza sistemática de la lectura y la escritura.

González, X-A., Buisán, C. eta Sánchez, S. (2009). Prácticas docentes para enseñar a leer y a escribir. *Infancia y Aprendizaje*, 32, 167. or.

Para ser un profesional de la primera infancia realmente efectivo debe de haber una interpretación reflexiva de las relaciones con los niños, con las familias y los compañeros, no solo a través de nuestros conocimientos teóricos, sino también a través del espejo de nuestras historias personales subjetivas y nuestros roles actuales, emocionales y físicos.

Peeters, J. (2008). Los profesionales, actores de cambio. *Infancia en Europa*, 08.15, 25. or.

Informazioa jasotzeko tresnak izan behar ditugu prozesuan zehar, ikaslea nola dagoen ikusteko eta hobetzeko erabakiak hartzeko. Hobetzeko garrantzitsuen feedbacka da, zeren laneko ebidentzia asko jasotzen baditugu eta inolako itzulketarik ez badago, gaitasuna ez baita hobetuko.

Hik Hasi (2009). Elena Cano-ri elkarrizketa. *Hik Hasi*, 139, 22. or.

Erabiltzen ditugun txantxek, kontakizunek edota ipuinek zein erreferente bultzatzen dituzte? Darabilgun hizkuntza parrakea eta ez sexista ote da? Nola antolatzen dugu espazioa? Ba al dago ezberdintasunik espazioaren erabileran? Haurren eta gazteen eskura jartzen dugun materiala berdín erabiltzen ote dute neskek eta mutilak? Erabiltzen ditugun irudiek sexu baten edo besteren protagonismoa bultzatzen al dute? Zein dira taldeko barregarriak? Eta astunak? Neska edo mutil bat hiztuna denean, balorazio bera egiten ote dugu?

Epelde, E. (2009). Hezkidetzeta eta hezkuntza ez-formala. Nola landu hezkidetzeta asialdian? *Hik Hasi*, 139, 28-29. orr.

Konpetentziak interpretazio eta akzio sistema konplexuak dira. Egiten jakitea, eta egin nahi izatea dira. Gure arretaren fokua dira, gure oinarrizko helburuak. Konpetentzien kontzeptua ezin da trebetasunekin nahastu, horiek konpetentzien osagai baitira. Gure burua engaina dezakegu edukiei infinitibo jarrita eta horrela konpetentzia bihurtu digula pentsatuta. Ez. Konpetentziak interpretazio eta akzio sistema konplexuak dira.

Pérez, A. (2009). Nola landu behar dugu konpetentzietan oinarritutako curriculum? Zer aldaketa dakartza? Eskola berrasmatu behar al dugu? *Hik Hasi*, 139, 31. or.

Cuando a menudo se plantea el tema de la escuela, de su éxito o de su fracaso, de cómo debería ser y cómo no debería ser, se suele olvidar que la escuela reglada es el resultado de un proceso social complejo [...] Pero la realidad que la escuela transmite es la que se vive en el exterior. Una sociedad ordenada transmite orden, una sociedad violenta transmite violencia, una sociedad educada transmite educación. Por lo tanto, la escuela es siempre el resultado de la educación. Por eso, es preciso potenciar la ciudad educadora, ya que, en el fondo, es siempre la ciudad la que educa y sus ciudadanos son el resultado de su poder educador. La escuela es tan sólo un socio importante en la tarea de educar.

Prats, J. eta Santacana, J. (2009). La ciudad, un espacio para aprender. *Aula*, 182, 51. or.

La idea central de la pedagogía dialógica es concebir la educación como un proceso de reciprocidad entendiendo que enseñar implica conversar (Mercer, 2001). Según este autor, en una actividad conjunta, como la de aprender, no sólo interactuamos sino que también “interpensamos”. Se trata pues de un proceso en el cual el pensamiento y el lenguaje están estrechamente unidos.

Esteve, O. (2009). La interacción, un proceso que implica conversar. *Cuadernos de pedagogía*, 391, 57. or.

Uno de los retos actuales sería conseguir que la exploración personal que propicia la literatura interese finalmente a los chicos y les ayude a perder la incomodidad ante sus emociones o a descubrir las ventajas de la gestión de las relaciones personales. Otro reto, probablemente aún más difícil, es definir modelos literarios y de conducta que ayuden a las chicas a verse como sujetos y no como objetos definidos por la mirada masculina, a asumir los riesgos de la lucha por el espacio exterior sin renunciar a sus modos de ser y sin la necesidad de convertirse en “supermujeres”.

Colomer, T. eta Olid, I. (2009). Princesitas con tatuaje: las nuevas caras del sexismo en la ficción juvenil. *Textos*, 51, 66. or.

Haur literatura, lehenik eta behin, literatura baita. Eta literaturak, arte orok bezala, ez duelako adinik [...] Haurrentzat bakarrik al dira lpuin-kontalariak? Goroldioa bakarrik haurrentzat al da? Eta izarrak? Eta mariorratzak, txitxi-buruntziak eta margorringoak? Arrainak bakarrik amuarentzat bakarrik eginak al daude bakarrik? Edota hodeiek bakarrik zertarako balio dute bakarrik, euria egiteko bakarrik?

Añorga, P. (2009). Hitzontzi. *Behinola*, 19, 16. or.

Bitartekariak jatorrizko testuaren gainean batez ere bi esku hartze mota izan ohi dutela igar daiteke: Nahigabeko manipulazioa, akatsak eragiten dituena, bitartekariak jatorrizko testuari dagozkion hizkuntza eta kultura nahikoa ezagutzen ez duelako. Nahita eragindako manipulazioa, alderdi askotatik egokiagoak diren testuak sortzeko: tabu diren gaiak arintzeko, ustez xede-hartzaileek ezagutzen ez dituzten kultur erreferentziak egokitze edota hizkuntza-politika jakin bat defendatzeko.

Ruzicka, V. (2009). Kulturantzatasuna dela eta itzulpenetan sortutako arazoengatik hausnarketa. *Behinola*, 19, 21. or.

Y es que un libro es, cuando nos toca, una de las mejores maneras de asirnos y a la vez alejarnos del mundo. Álvaro Cunqueiro solía decir que resistimos porque soñamos; me gustaría apuntar: y porque leemos.

Mejuto, E. (2009). El arcón de la memoria. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 227, 82. or.

Nada más desmoralizador que vivir con personas que se quejen. No sólo es algo que hacen los viejos sino que ahora en general la gente tiene una gran tendencia a quejarse. [...] Me parece que me va mejor si trato de no quejarme, espero molestar menos y me daría horror volverme una anciana quejumbrosa. Envejecer bien no sólo es bueno para una misma sino que sobre todo es bueno para los demás.

Bofill, R. (2009). Quejarse. *El Ciervo* 699, 33. or.

La cortesía es tan necesaria como cada vez más rara. Hay quienes casi la asimilan a lo políticamente incorrecto -considerar a mujeres o a gente mayor como débiles o como viejos- pero en realidad lo que buscan es la coartada perfecta para su mala educación.

Suñén, L. (2009). ¿La cortesía es aún necesaria? *El Ciervo* 698, 21. or.

Interpreto la cortesía no como un comportamiento rígido, de etiqueta o pasado de moda sino como una serie de actitudes y de comportamientos que hacen que la convivencia sea más agradable. [...] el logro máximo de vivir cortésmente sería animar al otro a sacar lo mejor de sí mismo convirtiéndonos en espejos de cordialidad que muestran reflejos positivos a quien se contempla

Sanz, E. (2009). ¿La cortesía es aún necesaria? *El Ciervo* 698, 23. or.

Nuestro mundo tiene en la autosuficiencia el mayor de sus defectos. Eso explica el trato que se da en él a los más desfavorecidos. [...] La idea de que cualquier hombre, hasta el más insignificante, el más maltratado por la fortuna, es portador de algo valioso, es uno de los grandes mensajes del cristianismo.

Martín Garzo, G. (2009). La loca fantasía del cristianismo. *El Ciervo* 698, 29-30. orr.



<http://abelgalois.files.wordpress.com/2008/11/p1010425.jpg>

Jolas kooperatiboa

Jolastea gogoz, askatasunez eta disfrutatzeko helburuarekin egiten dena baino askoz ere gehiago da. Helduok jolasa bakarrik honetara mugatzeko joera daukagu, baina umeei jolasteak aukera eskaintzen die errealitatea aztertzeko ohiko arauetatik at dauden begirada berri eta ezberdinetatik.

Horri esker, umeak modu integralean garatzen joaten dira jolasaren bidez. Beraz, jolasa ez da denbora galtzea, jolasa maila motorrean, kognitiboan, sozio-emozionalean... haztea da.

Egia da jolas mota ezberdin pila dagoela, baina ale honetan, jolas kooperatiboen oinarrietan, onuretan eta adibideetan jarri nahi da arreta.

Sarri, jolasak irabazle eta galtzaile terminoetan ulertu izan dira. Gure ustetan, jarrera hau ikuspegi inklusiboren kontra doa, non premiazkoa den ume guztien partaidetza, gozamina eta garapena.

Aitortu behar da gaur egun lehia gizarte honen bizimoduaren ardatz bilakatu dela; baina guk hezitzaile moduan, hori nahi al dugu gure umeentzako? Ez litzateke egokiago izango lehian oinarritzen diren egoerak erabiltzea beste kompetentzia batzuk garatzeko? Negoziaziorako, adibidez?

Benetan al daude disfrutatzen umeak baldin eta jolastean, gainontzeko umeen aurka etsaiak bailiran borrokatzen badira, irabazle izateko, edota galtzaile izatearen beldurraren eraginez? Zaila da sinestea egoera hauetan jolasaren helburua betetzen denik. Aldiz, erraza da irudikatzea umearen bakardade sentimendua saiatzeko ari denean garaile ateratzen aurrean daukan erronkatik edo behintzat, galtzaile izatea ekiditen.

Guri, hezitzaile moduan, benetan interesatzen zaiguna zera da: ume guzti-guztiak garaile izatea. Modu horretan, euren auto-estimua eta auto-irudia babesteaz gain, partaidetza areagotzea ere lortuko genuke eta ondorioz, garapena sustatzea. Horretarako, ezinbestekoa da elkarmenpeketasunean oinarritzen diren egoerak diseinatzea; hau da, umeak ez dira sekula garaile aterako elkarrekin lan egiten ez badute eta elkarri laguntzen ez badiote. "Denek irabazi eta inork ez galdu" izan beharko litzateke jolasen goiburua.

Elena Lopez de Arana Prado

Jolastu, hazi eta ikasi¹

Juanjo Otaño

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea

Sarrera

Beharbada, jolasaren gainean esan beharrekoak esanda daude. Baina asko dago egiteko oraindik, eta horregatik, jolasari buruz hitz egiten jarraitu nahi dugu. Esaten dugu jarduera berezkoa eta naturala dela —bai haurarentzat eta baita helduarentzat ere—. Nolanahi ere, hezitzaile bezala, hura zelan erabili planteatzen dugu: dela haurra ezagutzeko, dela hark bere buruaz duen ezagutza eta bere garapen osoa indartzeko, dela haren jakin-mina pizteko (gauzekiko, munduarekiko, pertsonerekiko), dela jostetarako, edo harekiko dugun harremana hobetzeko. Oraindik ere aztertzen ari gara zelan txertatu jolasa eguneroko heziketan haurren ikaskuntza-prozesua hobetzeko, haren ezagutzak, identitatea, baloreak eta harremanak eraikitzeke.

Izan ere, denek eta denok jolasten dugu. Jolasean ari da atzamarra etengabe miazkatzen duen haurra, edo txintxirrina behin eta berriro astintzen duena, haren soinua eragiten dion plazeragatik. Jolasean ari da harriak babarrunak direla esan eta panpinak haiekin elikatzen dituen haurra, edo piezak lotu eta banantzen dituena, forma eta eraikin berrien bila. Jolasa sozial bihurtzen da besteak hartzen duenean parte, eta jolasteko modua ezartzen dugunean, gure harremanen arauak finkatuta. Orduan, kooperatu egiten dugu eta lehiatu egiten gara, harremanak egiten ditugu eta elkarrekin dibertitzen gara: harrapaketa, ezkutaketa, partxisean, kartetan, Play Stationekin... Helduak ere jolasten gara beste etapa batzuk gogorarazten dizkiguten jolasekin eta jolasetik harago doazen helburuekin: energia

erretzea, osasuntsu egotea, besteekin harremanak jorratzea edo egunerokotasunetik ihes egitea. Hain gazteak ez direnak ere jolasten dira, eta horrela, elkartzeko konpromisoari eusten diote, tabernan, zahar-etxean, tute-partidaren inguruan, musean, briskan edo dominoan; aldi berean, irabaztea eta besteekin egotea bilatzen da, denbora betetzea eta ondo pasatzea.

Mila galdera sortzen zaizkigu jolasaren gainean: zergatik?, zertarako?, nola? Berezko fenomeno izanik, naturala eta unibertsala, zergatik ez da gehiago erabiltzen irakaskuntzan? Zergatik mugatzen da heziketan Haur Hezkuntzara, edo beharbada, aurreragoko etapetan, Gorputz Hezkuntzako irakasle ausarten baten saioetara. Nola kokatu dagokion lekuan eta haren potentzialtasun guztiak baliatu?

Izan ere, jolasean aurkakoen sintesia aurkitzen dugula ematen du: jostaketa vs seriotasuna, bat-batekotasuna vs programazioa eta kontrola, aisia vs lana, ikaskuntza espontaneo edo naturala vs bideratutako ikaskuntza. Hortaz, guri dagokigu sintesi hori erraztea.

Artikulu honen helburua jolasaren gairako sarrera izatea da. Hiru dira bertan garatuko diren puntu nagusiak. Lehenengo puntuan aztertzen da zer eskaintzen dion jolasak haurrari. Ondoren, jolasa garapen psikologikoarekin lotzen da; bertan azaltzen da zein lotura estua dagoen haurren beharren eta potentzialtasunen artean garapenaren une bakoitzean, eta zertara jolasten duen. Azkenik, jolasa irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuarekin lotzen da, eta planteatzen da jolasa gune ego-

kia dela ikaskuntza eraikitzeke.

Jolasaren ezaugarriak

Asko dira jolasean nabarmentzen diren ezaugarriak; hona hemen horietako batzuk:

- Haurren garapen osoko faktore bat da. Jolasean, bakarrik zein beste batzuekin, egoera normaletan edo irtenbidea eman behar dienean azaltzen diren arazo txiki zein handiei, haurrak aktibatu eta abiarazi egiten ditu bere izatearen hainbat dimentsio: adimena, motrizitatea, afektibotasuna, soziabilitatea, baloreak... Gaitasunak adierazten ditu, emozioak, eta egoeran inplikatzen da helduak lanean erakusten duen seriotasun eta intentsitate berarekin.

- Gaitasun fisikoak eta psikikoak garatzen laguntzen du, eta aldi berean, norbere trebetasunak eta mugak ezagutzen laguntzen du. Horregatik, autore batzuek jolasean eszenatoki egokia ikusten dute haurra behatu, ezagutu eta diagnostikatzeko.

“Adin horretan —bi urtekoen gela— laguntza eta segurtasuna behar dute garatzeko, eta eman egin behar zaie, haien gaitasunak eta mugak errespetatuta. Jolasa da adierazteko duten bidea, eta jolasak eta batez ere errutinak lagundu egiten die denboran eta espazioan kokatzen; horrek sustatu egiten du haien autonomia eta identitatea garatea eta beren ingurua ezagutzea. Jolastu egin behar dute, horrela ezagutzen baitute mundua, beren burua, besteak eta aldi berean, aurrera egiten dute garapen motorrean, adimenarenean, linguistikoan eta sozialean” (Cárdaba eta Cavia 2008, 28. or.)

- Berezko jarduera natural eta askea da, haurrari plazera eta poza ematen diona; haurra motibatuta sentitzen da eta argi eta garbi azaltzen du jarrera positiboa, borondatezko jarduera baita, gogoz garatutakoa. Jarduera askea da, inork epaituko ez duena, beretzako espazioa eskaintzen diona eta beste jarduera batzuetan onartzen ez den errore-marjina duena. Are gehiago, jolasean gainmotibazioa gertatzen dela ere esaten da. Era berean, ikusten dugu haurrak interesa galtzen duenean egoera horretan, utzi egiten duela eta beste bat bilatu, erakargarriago eta interesgarriago egiten zaiona.

- Esan ohi da jolasa jarduera autotelikoa dela, hau da, justifikazioa bere baitan duen jarduera. Hain zuzen ere, haurren jolasa eta helduarena bereizten dituen da haurrak jolasteagatik jolasten duela, eta jolasa bera de-

Oraindik ere aztertzen ari gara zelan txertatu jolasa

eguneroko heziketan haurren ikaskuntza-prozesua hobetzeko, haren ezagutzak, identitatea, baloreak eta harremanak eraikitzeke

la helburua. Helduarentzat, aldiz, jolasa irabazteko birtartekoa da, edo atsedean hartzeko, edo besteekin harremanak ezartzeko, edo sasoiaren egoteko...

- Errealitatea ezagutu, kontrolatu eta hari egokitzeko modu pribilegiatua da. Esploratzea eta esperimentatzea da, eta ezagutza-iturri bilakatzen da.

“Jolastea bizi den mundua harrapatzea da nolabait, baina ondo ezagutzen ez duen mundua, ez kognitiboki ez afektiboki. Horregatik, haurrek mundu bat asmatzen dute jolasten dutenean, irudimenezko mundu batean sartzen dira. Baina ez da pentsatu behar haurra ezezetik abiatzen dela: berrasmatu, birsortu egiten du bizi den mundu soziala, hura ulertu ahal izateko eta haren lege konplexuak ondo ezagutzeko” (Ortega 1986, 34. or.)

“Etapan honetan —Haur Hezkuntza— espazioa eta denbora antolatzeke aukera bat da ulertzea jolasa, adin honetan, ez dela soilik ondo pasatzea eta entretenitzea; izatez, lankidetzara eta elkartasunara bultzatzen ditu, besteak antzematean, eta errealitatea sortu eta birsortzeke aukera ematen du, hura ulertu, atzeman eta menderatzeko” (Vega Navarro 1997, 16)

- Gatazkak askatzeko bidea ere badela esan daiteke *“jolasak gatazkak baztertu edo konpondu egiten baititu. Haurrari janaria ez bazaio gustatzen, panpin bati emango dio sinbolikoki eta hark atseginez jango du”* (Delval 1994, 288. or.)

Jolasa eta garapen ebolutiboa

Jolasak argi islatzen ditu haurren ezaugarriak adin bakoitzean: agerian uzten ditu adin bakoitzari dagoz-

¹ Argitasunagatik, alde batera utzi da jolas eta joko hitzen arteko bereizketa, eta jolasaren baitan biltzen dira biak.

Mila galdera sortzen zaizkigu jolasaren gainean: zergatik?, zertarako?, nola? Berezko fenomenoa izanik, naturala eta unibertsala, zergatik ez da gehiago erabiltzen irakaskuntzan?

kion ezaugarriak, beharrak, gaitasunak eta aukerak. Hori dela eta, jolasaren eboluzioa bat dator haurraren garapen ebolutiboarekin.

a) Jolasen sailkapena

Piagetek hiru elementu aipatzen ditu haurraren garapenean: ariketa, sinboloa eta araua; ondorioz, hiru jolas mota nagusi ageri dira: **ariketa-jolasa**, **jolas sinbolikoa** eta **arau-jolasa**.

Bizitzaren lehenengo urte bietan, **ariketa-jolasa** da nagusi, "jolas funtzional" bezala ere ezagutzen dena. Haurraren jarduerak egokitze motakoak dira hasiera batean, baina jolasean aritzeak eragiten duen plazeragatik garatzen dira jarraian. Jarduera mekanikoak dira, errepikapenean oinarritutakoak, norbere gorputza edo errealtatea ezagutu eta esploratzeko zentzumen- eta mugimendu-jarduerak. Oro har, jolasa indibiduala da; esaterako, gorputzaren beraren mugimenduak, objektuak jotzea, bultzatzea edo jaurtitzea. Baina helduak ere har dezake parte; esaterako, hark haurra zuzenean estimulatu duenean truke- edo elkarrekintza-egoeraren bat proposatuz: kantuak eta jolas erritmiko eta errepikakorrak, esaterako, ku-kuka aritzea. Une batetik aurrera, haurrak berak proposatzen dio jolasa helduari.

Urte bi dituenetik aurrera, funtzio sinbolikoa eta irudikapenezkoa agertzean, haurra errealtatea irudikatze-ko gai izaten hasten da, eta **jolas sinbolikoa** agertzen dira. Hasieran, errealtatearen irudikatze hori zantzetan oinarrituta egiten du, eta aurrerago sinbolo eta ikurrak erabilia. "Guau" entzuten duen 18 hilabete inguruko haurrak txakurrekin lotzen du zaunka. Aurrerago, gai izango da bizitza errealeko objektu eta eszenak irudikatze-ko, aurrean izan ez arren; horretarako,

beste objektu eta jostailu batzuk erabiliko ditu, eta egoerak gogoratu eta berriro biziko ditu, edo aurre hartuko die: parkeko harriak babarrun edo dilista bihurtuko dira, eta serio-serio emango dizkie jaten bere panpinei zuhaitz edo zuhaixken hostoekin egindako plateretan. Edo gai izango da irudikatze-ko kartoizko kaxa bat autoa dela edo bere gauzak garraiatzen dituen kamioia. Jolas sinbolikoen eta imitazio-jolasen garaia da, eta haurrak imitatu egiten ditu berarekin bizi direnek betetzen dituzten rolak. Jolas mota honek izaera kognitiboa eta afektiboa biltzen ditu.

"Lau urtetik aurrera, aurrerapen handia ikusten da jolasen konplexutasunean, eta errealtatea modu zehatzagoan islatzen du haurrak. Jolasak askoz koherenteagoak dira eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute talde-jolasek. Oso arlo garrantzitsua da egoera sozialak errepikatzen dituzten jolasak; bertan, haurrek "gidoiak" erabiltzen dituzte, egoera sozialen eskemak, azken batean. Garai horretan, haurrak guraso izatera jolasten dira, sendagile izatera, irakasle, eskola eta edozein egoera sozial, zeinetan haurrek askotariko rolak jokatzeko dituzten" (Delval 1994, 296. or.)

Esan ohi da jokoan oro har, eta joko sinbolikoa bereziki, asimilazioa dela nagusi moldaeraren (*accommodation*) aurrean, Piagetek definitu bezala ulertuta asimilazioa eta moldaera: haurrak errealtatea interpretatu egiten du eta bere eskemetara moldatzen du, bere nahien arabera aldatuta; errealtatea bere beharretara makurtzen da². Euritakoa zaldi edo lantza bihurtzen da, nahi duen funtzioa esleitzen die; edo samurki exijitzen die bere panpinei berak irimotasunez ukatu duena jateko edo egiteko.

Sei-zazpi urte dituenetan, jolasa sozial bilakatzen da argi eta garbi; **arau-jolasez** hitz egiten hasten gara: garrantzitsua da jolaskideak izatea, taldean jolasten da eta kooperazioa zein lehia izaten dira. Horrek arauak ezartzea eskatzen du, jolasa zehazteko, eta denek bete behar dituzte arau horiek. Balore berriak ageri dira —kooperazioa, lehia, ituna, kontsentsua, helburu komunak, kidesuna, elkarrekotasuna...—, jarrera berriak, bestearen tokian jartzeko beharra, ikuspuntu ezberdinak koordinatzeko; horrek guztiak garapen soziala eta egozentrismoa baztertzea bultzatuko du.

Adin honetan, jolasak errespetatu beharreko arauak ditu, berezko esanahiaz gain —esate baterako, poliziak eta lapurrak, indiarak eta cowboyak, karta jokoak, partxisa, damak edo xakea, puxtarriak, futbola edo beste

² Argitasunaren izenean, egokitu eta moldatu bereizi ditut, eta bigarrena Piageten accommodation terminoa itzultzeko erabili dut.


kirolen bat...—. Arau horiek zehazten dute nola jokatzeko den eta nor den garaile edo galtzaile; azken arlo hori ez zen ageri jolas sinbolikoa, han ez zegoen garrailerik eta galtzailerik³. Horrek aldaketa garrantzitsua dakar: jolasa sozializatu egiten da, puntuak irabazteko, galtzea saihesteko. Beharrezkoa da arauak errespetatu eta haietara egokitzea. Beraz, jolasteaz eta ondo pasatzeaz gain, beharrezkoa da ikuspuntu ezberdinak koordinatzea, ulertzea zer dioten eta zer proposatzen duten jolaskideek, estrategiak diseinatzea besteen ekintzak aurrekusi eta neutralizatzeko, eta norbereak zehaztutako helburuetara bideratzeko. Hau da, beharrezkoa da zentraltasuna galtzea eta haurren egozentrismoa gainditzea.

Maite Gairagordobilek monografiko honetan dihardu kooperazio-joko mota honetaz, lehiatze, eliminazioaz,

eta iradokitzen du joko kooperatiboak indartu behar direla haurraren garapenerako egokiak direlako.

Nolanahi ere, esan beharra dago errealtatea beti dela soilagoa, eta aldi berean, konplexuagoa eta dinamikoagoa edozein deskribaketa teoriko baino; horrela, bada jokoak ez datozenak beti bat iradokitzen diren irizpideekin.

Haurrak bost urte inguru dituenetan, beste joko mota bat ageri da zenbait egilek **"balentria jokoak"** deritzenak (beste batzuek "heroien jokoak" aipatzen dituzte). Joko horietan, haurrak balentriak egin nahi dituzte, eta horrela, lortzen ari den gaitasunak eta ezaugarriak azaldu. Esaterako, ikuspuntu motorretik, haurrak konfiantza eta segurtasuna bereganatzen du ibileran, orekan, indar handiagoa du eta trebeagoa da,



<http://infantilsautuola.files.wordpress.com/2009/01/dsc00169.jpg>

³ Euskararen kasuan, hortxe ezar dezakegu jolasaren eta jokoaren arteko aldea.

Konstruktibismoa soilik da posible ingurune lasai, afektibo eta batez ere pertsonalizatuan, ikasleekiko errespetuan oinarrituta eta haien eraikitze-potentzialean sinetsirik

eta aldi berean, konfiantza handiagoa du bere buruarengan. Eta hori azaltzeko bide bat nahi du eta bilatzen du, nabarmentzeko eta arreta bereganatzeko. Ez da harrizkoa haurrek adin horretan erakusten duten dinamismoa eta ikasteko gaitasuna, adibidez, bizikletan ibiltzeko edo bestelako gaitasun motor batzuk erakusteko.

Eraikitze-jokoek ere ezaugarri bereziak dituzte: batzuetan bakarka garatzen da, baina beste batzuekin lankidetzan ere egin daiteke. Beharrezkoak dira trebetasun motorrak eta baita intelektualak ere. Batzuk mekanikoak dira eta piezak sartu, banatu eta lotzea eskatzen dute; beste batzuetan, maketak egin behar dira edo eskalazko kopiak. Beraz, haien konplexutasuna, zailtasuna eta adinarekiko egokitasuna aldatu egiten da joko batetik bestera.

“Haurra nagusitu ahala, jolasak elkarrekin nahasten dira modu korapilatsuan. Bost urteko haurrak ariketa-jolasetan jarraitzen du, baina baita sinbolikoetan ere, eta lasterketak makila baten gainean egiten ditu, zaldia dela irudikatuz eta “indiar” bati jarraituz. Eta hamar urterekin polizia eta lapurretara jolasten denean, sinbolismoa ukazina da, baina gainera, denek bete beharrezko arau zorrotzak daude, eta horrekin guztiarekin batera beste alde bat ere agertzen da, aurrekoak bezain garrantzitsua: azkar egin behar da korrika eta abilezia handiz, harrapa ez zaitzaten. Helduen kirolak eta antzezpenak haurren jolasen jarraipena dira, besteak beste” (Delval 1994, 304. or.)

Jokoa eta irakaskuntza/ikaskuntza-prozesua

a) Funtzionamendu psikologikoaren ikuspegi konstruktibista

“Gaur egungo hezkuntzaren psikologian eragin handia du pertsonen psikismoaren ikuspegi konstruktivistak, bere bertsio guztietan. Konstruktibismoaren hasierako ideia zen ezagutza eta ikaskuntza, hein handi batean, dinamika baten emaitza direla, zeinetan berebiziko garrantzia duten norbanakoak egiten dizkion ekarpenak ezagutzeari eta ikasteari. Ezagutza eta ikaskuntza ez dira inoiz eskarmentuaren irakurketa zuzenaren emaitza, ezpada adimenaren jardura eraikitzaile batena, zeinen arabera eta zeinen bitartez irakurri eta interpretatzen dugun esperientzia” (Coll 2001, 157. or.).

Konstruktibismoaren arabera, ikaskuntza zera da: eza-gutzak, jarrerak, baloreak, erlazioak, e.a. eraikitzekeo prozesua. Konstruktibismoak azpimarratu egiten du ikasten ari denaren garrantzia, eta ikasteko gai ikusten du, bere ideiekin; izaki aktiboa da, eta bere izate horretatik eta dakienetik abiatuta ikasten du. Konstruktibismoaren arabera, berebiziko garrantzia du ikasten duenaren ekarpenak ikaskuntza-prozesu horretan.

Jolastean, haurra ez da izaki pasiboa, keinuak eta jarrerak mekanikoki kopiatu edo errepikatzen dituena; izaki aktiboa da, bere ezagutza eta bizipenekin, eta horien arabera interpretatzen eta kudeatzen du egoera berria: eraiki eta egituratu, edo hobeto esanda, berre-raiki eta berregituratu egiten ditu ezagutzak, afektuak, harremanak, baloreak, mugimenduak... horretarako oinarri hartuta jokoan parte hartzen duten objektu eta pertsonen elkarreragina.

Bestalde, Hernándezek (1997, 302. or.) dioenez, *“konstruktibismoa soilik da posible ingurune lasai, afektibo eta batez ere pertsonalizatuan, ikasleekiko errespetuan oinarrituta eta haien eraikitze-potentzialean sinetsirik”*. Hori horrela bada, argi eta garbi da posible jolasaren testuinguruan, kontuan hartuta haren ezaugarriak: naturaltasuna, berezotasuna, inplikazio pertsonala, gozamina, eta norbanakoaren mailara, gaitasunetara eta ezaugarrietara egokitzeko gaitasuna, bakotzaren erritmoa eta ezaugarriak baloratuz eta errespetatuz.

b) Jolasa eta ikaskuntza esanguratsua

Ikaskuntza esanguratsuz dihardugunean, ari gara harreman erreal eta ez arbitrarioak eraikitzekeo aukeraz, haurren aurrezagutzen eta egoera berriaren artean. Hau da, egoera berria aurreko ezagutzen arabera ulertu eta interpretatzen da; aurreko ezagutzak eta informazio berria erkatzen dira eta gatazka kognitiboa, de-

sadostasuna edota kontraesana azaltzen dira; azkenik, ikasteak aldatzea esan nahi du, eta ikaskuntza-prozesuan eraiki eta berre-raiki egiten dira banakoaren ezagutzaren eskemak -Piageten ezagutzaren kontzeptua da: oreka, desoreka, berreoreka, edo bestela esanda, asimilazioa eta moldaera (*accommodation*)-.

Ikaskuntza posible izan dadin ikaskuntza-egoerak baldintza batzuk bete behar ditu: esanguratasun logikoa, hau da, barne logika izatea eta haurrak hari zentzua aurkitu ahal izatea; esanguratasun psikologikoa, hau da, haurren garapen mailara egokitzea edo Vygotskyk definitutako Garapen proximalerako gunean kokatzea. Ikasleari jarrera positiboa eskatzen diogu ikaskuntza-prozesuarekiko, harekin inplikatzeko eta jarrera aktiboa izatea, jardura fisikoa eta bereiziki jardura mentala garatzea, bera baita protagonista prozesuan.

Jolas-egoera aztertzean, ikus dezakegu aipatutako ezaugarriak betetzen direla: egoera esanguratsua da haurrarentzat, zentzua du bere horretan eta haurrak jarrera aktiboa eta aldekoa erakusten du haren aurrean; bere behar, interes eta ezagutzetatik abiatuta interpretatzen du, zentzua aurkitzen dio eta aktiboki hartzen du parte. “Vygotskyk dioen moduan, jolasak garapen proximalerako gune bezala jokatzeko du. Haurrak, jolastean, jardura konplexuagoetarako saiakerak egiten ditu, heldutasun handiagoa eskatzen dutenak haurren jardura “serioan” baino; horrek balizko eginkizun eta arazoan jartzen du eta bizitzan oraindik ere ez dituen eginkizun eta arazoekin aritzeak aukera ematen dio haurrari ahalik eta modu egokienean ebazteko, egiazko erabaki oker batek izango lituzkeen ondorioen beldurrik gabe” (Ortega 1986, 33. or.).

Jolasak, azkenik, behin eta berriz behartzen du haurra bere eskema motorrak, ezagutzarenak, harremanak, e.a. egokitzera, eta horrela adierazten du hautatzen dituen jolas eta jostailuetan, jolasteko moduan, egiten duen horretan eta egiten ez duenean; etengabeko ikaskuntza gertatzen da, aldaketa amaigabea.

Har dezagun adibide gisa Richmond-ek (1970, 103. or.) aztertzen duen bi urteko haur baten kasua:

“Irudika dezagun bi urteko haur bat lurrean bere jostailuekin jolasean. Forma askotako adreiluak ditu, hartz txiki bat, gomazko pilota gorria eta zurezko trenua.

Orduan beste jostailu bat gehitzen dugu, trapuzko pilo-

Jolastea ez da ez ikastea ez lan egitea, baina jolastean, haurrak inguratzen duen mundu soziala ezagutzen eta ulertzen ikasten du, batez ere

ta gorria. Haurra berehala hasiko da trapuzko pilotaren ezaugarrietara egokitzen, eta gainontzeko jostailuekin bezala hasiko da harekin jolastean. Objektu berria egokitu egingo du pilotaz eraiki duen eredu mentalean. Beste pilotaren forma eta kolorea ditu, eta berdin egiten du bira. Hortaz, berria zaharrera asimilatzen du. Aldi berean, ikusiko du ez duela bote egiten gomazko pilota gorriak bezala, ez duela zarata bera egiten lurrera botatzen duenean, eta hartzairen leuntasuna eta tenperatura dituela. Ondorioz, pilotaz duen eredu mentala egokitu egin beharko du trapuzkoa txertatzeko. Horretarako, moldatu egingo du pilotaz duen ideia, hartzairen leuntasuna eta gomazko pilotaren forma eta kolorea bilduta. Horrela moldatzen du zaharra berrira.

Orain, pilotaz duen ideia osoagoa eta egonkorragoa da. Eta zer gertatuko da puxika gorria ere gehitzen badugu? Piloten forma eta kolore bera du, bira eta bote egiten du, baina askoz moldagarriagoa da estutzen denean, eta erantzun motorra (pisua) ere ez da bera. Ezaugarri horiek guztiak asimilatu egin daitezke orain arteko egituretan eta moldaera-prozesua ez litzateke zaila izango. Hala ere, haurrak ikusiko luke bultzatzen egitean gorantz doala, eta ez lurrerantz ordura arte erabili dituen jostailuak bezala. Portaera horrek moldaera esanguratsua eskatzen du, egokitu nahi bada. Eredua doitu beharra legoke gauzen mugimendua gorantz zein behegantz izan daitekeela onartzeko. Beste jostailuekin esperimenta lezake, eta ikusiko luke modu jakin batean bultzatuz gero, jostailu horiek gorantz egiten dutela erori aurretik. Egokitzapena lortu ahal izango litzateke moldaera-prozesu luze samar batekin.

Demagun puxika lehertu egiten dela. Zarata bat entzuten da eta bat-batean puxika desagertu egiten da! Esperientzia hori erabat berria egiten zaio haurrari, eta uko egiten dio, ez baitago egitura asimilagarrikerik zeinetara egokitu. Ordura arte, objektuak ez dira ezta ezta

Gaur egungo jolasek ez dutela zerikusirik garai batekoekin. Jolas horiek berreskuratzea proposatzen du, haurrek jolasteko beste modu batzuk ezagut ditzaten, sinpleagoak eta aukera handiagoa ematen dutenak sormena garatzeko eta sozializatzeko; horiei kontrajarritan aipatzen ditu gaur egungo jolasen pasibotasuna eta indibidualtasuna

desagertu, eta beti jarri izan zaie beste objekturen bat aurrean. Ezinezkoa da gertaera berriarekiko moldaerarik izatea, ezohikoezia baita, eta egitura guztiak erabat distorsionatzea eskatuko bailuke egokitu ahal izateko.

Azkenik, pilotak baditu zenbait ezaugarri, zeintzuetara ezin den egokitu gure balizko bi urteko haurra. Ez da egokituko pilota hiru dimentsiodun objektu-multzo baten baitan kokatzen, ez lurrarekiko kontaktua gainazal minimo batean gertatzen delako ideiarra, ez haren bolumenaren zatirik handienak lurra ukitzen ez duelako ideiarra. Kontzeptu horiekiko moldaera askoz aurrerago gertatuko da haurraren irudimenaren garapenean” (Richmond 1970, 103. or.).

c) Jolasa eduki gisa eta jolasa baliabide metodologiko gisa

Orain arte esandako guztian oinarrituta, eta laburpen gisa, esan daiteke jolasa ikasteko eszenatoki natural gisa har daitekeela. Ortegak (1990, 21. or.) dioten moduan, “jolastea ez da ez ikastea ez lan egitea, baina jolastean, haurrak inguratzen duen mundu soziala eza gutzen eta ulertzen ikasten du, batez ere”.

Guitart-ek (1992, 7) esaten digu nola baliatu jolasa eta zein izan daitekeen irakasleen eginkizuna. Jolasa cu-

riculumaren baitan egon daiteke, ondare kultural gisa, plazer gisa eta baliabide didaktiko gisa.

Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu jolasa plazer-iturria dela, eta haurrak jolastu eta ondo pasatzen duela, hau da, ondo pasatzeko jolasten duela. Hortaz, berretsi egiten dugu jolasa bera dela helburua eta jolasteak berez duela zentzua, plazer eragiten baitio jolasean ari denari, eta haren garapen pertsonalari laguntzen dio; jolasean ari denarentzat, modu bat da bere beharrak, interesak eta gaitasunak adierazteko, eta horrez gain, norbera bizi den jendartearen kultura ezagutzeko bidea da, eta izan daiteke eskolako edukiak ikasteko baliabide didaktikoa.

Jolasek balio antropologiko eta kulturala dute, bai, eta haiak garatzen diren jendartearen testuinguru ekonomiko eta kulturala islatzen dute. Batzuek jolas tradizionalak curriculumean txertatzea eskatzen dute, horrela haurrak bizi den jendartearen kultura eta ohiturak ezagut ditzan. Rodríguez Suárez-ek (2003, 24. or.) “ahaztutako jolas eta jostailuei” buruzko esperientzia aurkeztzen du, eta dio gaur egungo jolasek ez dutela zerikusirik garai batekoekin. Jolas horiek berreskuratzea proposatzen du, haurrek jolasteko beste modu batzuk ezagut ditzaten, sinpleagoak eta aukera handiagoa ematen dutenak sormena garatzeko eta sozializatzeko; horiei kontrajarritan aipatzen ditu gaur egungo jolasen pasibotasuna eta indibidualtasuna.

Jolasa ikaskuntza-edukiak lantzeko tresna egokia ere bada: eduki kontzeptualak (gertaerak, kontzeptuak, hatsarreak), prozedura-edukiak (estrategiak, prozedurak, helburu batera bideratutako ekintza ordenatuak), edo jarrera-edukiak (jarrerak, baloreak, arauak...).

Ezkutaketak edo pista-jokoak, esaterako, ingurua eza gutzea eskatzen du sarri, eszenatokiak alderatzea eta ebaluatzea, estrategiak eta joko-prozedurak garatzea eta errealitatera egokitzea. Hainbat jarrera eta balore garatzen ditu: lankidetzak, elkartasuna, norbere burua hobetzea edo helburuak lortzeko gogoia, besteak beste. Halako jokoek, bestalde, nahi ez ditugun beste jarrera batzuk ere gara ditzakete: sexismoa, indibidualismoa, aurkakoa ezeztatzea...

d) Irakasleen rola

Eztabaidatu izan da ea komeni den irakasleak parte hartzea haurren jolasetan; aukera baino areago irakaslearen betebeharra da hori. Haren rola aldatu egin-

go da gerta daitezkeen egoeren arabera: jolas askea, jolas askea hezitzailearen parte-hartzearekin, edo jolas bideratua (Guitart 1992, 8. or.).

Komeni da haurraren jolas askeari bide ematea etxean, eskolan, kalean, hura mugitzen den inguruneetan. Jolasa gune egokia izan daiteke hezitzaileak nahi duen hura indartzeko eta nahi ez diren jarrerak baztertzeko. Batzuetan, beharrezkoa izan daiteke hezitzaileak esku-hartzea haurrentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarrerak saihesteko, edo jarrera egokiak bultzatzeko.

Jolas askea gune egokia izan daiteke behaketarako ere. Berezkoa eta naturala denez, haurra ere den moduan azaltzen da; bere baliabideak azaleratzen ditu, objektu eta pertsonetikiko harremanak, zailtasunei eta frustrazioei aurre egin eta gaintzeko modua... Taldean jolasten duenean, harremanez hitz egiten digu, aukerez, gabeziez.

Hezitzailearen esku-hartzea dagoen jolasetan, hark aukerak iradoki ditzake, egoerak desblokeatu, berregituratu eta berrantolatu, rol berriak proposatu, jolasaren edukia aldatu, hausnarketa sustatu... Haurraren protagonismoa mantendu behar da jokoan; helburua ez da heldu zuzentzaile gisa jokatzeko, ezpada haren aberastasuna eta konplexutasuna jorratzea, dibertsifikazioa bultzatzea, nahi diren dohainak eta gaitasunak indartzea, eta gatazkak eta blokeoak gaintzen laguntzea.

Jolas bideratuan, hezitzaileak jolas zehatz bat proposatzen du, helburu jakin batzuekin. Lehen irakurri dugu Vygotskyren hitzetan jolasak garapen proximalerako gune bezala jokatzeko duela; haurrak, jolastean, jarrera konplexuagoetarako saiakerak egiten dituela, heldutasun handiagoa eskatzen dutenak haurraren jardura “serioan” baino; horrek balizko eginkizun eta arazoan aurrera jartzen duela eta bizitzan oraindik ere ez dituen eginkizun eta arazoekin aritzeak aukera ematen diola haurrari ahalik eta modu egokienean ebazteko, egiazko erabaki oker batek izango lituzkeen ondorioen beldurrik gabe. Bideratutako jolasak aukera ugari eskaintzen dio hezitzaileari, bai: jolaserako baldintzak ezar ditzake, proposatutako jokoak aztertu, zailtasunak dituztenei irakatsi, jolasa aberastu eta konplexuago egin, edo batez ere funtzio ludikoa betetzen lagundu.

Hezitzailearen esku-hartzea dagoen jolasetan, hark aukerak iradoki ditzake, egoerak desblokeatu, berregituratu eta berrantolatu, rol berriak proposatu, jolasaren edukia aldatu, hausnarketa sustatu...

Erreferentzia bibliografikoak:

- Cárdbaba A. eta Cavia S. (2008). Rutina en el aula de dos años. *Cuadernos de Pedagogía*, 382, 28. or.
- Coll C. (2001). Constructivismo y educación: la concepción constructivista de la enseñanza y el aprendizaje. Hemen: C. Coll, J. Palacios, A. Marchesi (comp.) (2001): *Desarrollo psicológico y educación. 2. Psicología de la educación escolar*. Madrid: Alianza.
- Delval J. (1994). *El desarrollo humano*. Madrid: Siglo XXI.
- Guitart R. (1992). El juego en la escuela. *Aula de Innovación educativa*, 7, 5. or.
- Hernández P. (1997). Construyendo el constructivismo: criterios para su fundamentación y su aplicación instruccional. Hemen: M. J. Rodrigo eta J. Amay (comp.) (1997). *La construcción del conocimiento escolar*. Barcelona: Paidós, 285. or.
- Ortega Ruiz R. (1986). Juego y pensamiento en los niños. *Cuadernos de Pedagogía*, 133, 33. or.
- Ortega Ruiz R. (1990). *Jugar y aprender*. Sevilla: Diada editores.
- Richmond P.G. (1970). *Introducción a Piaget*. Madrid: Fundamentos.
- Rodríguez Suárez S. (2003). Juegos y juguetes olvidados. *Cuadernos de Pedagogía*, 331, 24. or.
- Vega Navarro A. (1997). Jugar a ser iguales. *Cuadernos de Pedagogía*, 261, 16. or.

Jolastea, kooperatzea eta sortzea: esku-hartze psikopedagogikoko eredu baten hiru ardatz estruktural

Maite Garaigordobil Landazabal ¹

Psikologiako Fakultatea. EHko Unibertsitatea

"Garai eta kultura denetan jolastu izan da haurra. Haurtzaroko jarduera ereduak izanik, jolasa funtsezko jardunbidea da, haurra gara dadin funtsez laguntzen baitu. Horregatik du balio pedagogiko handia"

Sarrera

Psikologia eta Hezkuntza alorretan lanean diharduten helduek ez dute beti aintzat hartu jolasa garapenerako lantresnatzat. Urtetan eta urtetan jolasa alferrikako jardueratzat jo izan da, jolasak atsedean hartzeko, soberako energia deskargatzeko eta antzekoetarako bakarrik balio zuela uste izan da. Pixkanaka, ordea, fenomeno horren inguruan eginiko ikerlan eta sorturiko teoriak, helduok jolasari aitortzen diogun balioa eraldatzeko aukera eman digute eta, egun, haurraren garapenerako berebiziko garrantzia duen lanabes ez ezik, balio pedagogiko handi-handiko tresnatzat ikusten dugu.

Gauzak horrela antolatuz, artikulu honetako lehen partean jolasaren kontzeptuaren bilakaera ikuspegi diakronikotik aztertzen da, haur-jolasaren fenomenoaz formulatu diren teoria nabarmenenak sintetizatuz (ikus,

1. koadroa). Atal horretan, beste alde batetik, jolasak haurraren garapenean izan dituen kontribuzioak aztertutuz lanetako ondorioak sintetizatu dira, hots, jolasak garapen psikomotor, intelektual, sozial eta afektibo-emozionalean daukan garrantziaz dakiguna (ikus, 2. koadroa). Azterlan horietako ondorioek jolasaren eta garapenaren arteko lotura garrantzitsuak agerian utzi dituzte eta, bide batez, oinarriak finkatu dira, bai esku-hartze psikopedagogikoko egitasmo ludikoak hezkuntza-testuinguruetan eratzeko baita alor terapeutikoetan jolasa baliatzeko ere.

Artikuluaren bigarren partean muina jolas korporatiboetako dagokiena da: jolas horiek berriazko ezaugarri estrukturalak dituzte eta molde berriak dira, gainera. Atal horretan, jolasaren eta jolas kooperatiboaren ezaugarriak definitzeaz gainera, garapen pertsonal eta sozialeko hainbat faktoretan aztertu diren emaitzak sintetizatu dira (ikus, 3. koadroa).

Bestetik, EHko Psikologiako Fakultatean, azken hogeitun urteotan kooperazio eta sortze-jokoetan oinarrituriko esku-hartze psikohezitzaileen ildoak garatu dugu, 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako lau egitarau disei-

natu ditugularik (JOKO egitarauak, 4-6, 6-8, 8-10 eta 10-12 urtekoentzat). Horregatik, saiakuntza gisa aplikatu eta ebaluatu diren programa horietako lau jolas-adibide azalduko dira geroago, horien balioespeneko ikerketetan lorturiko emaitzen berri emanez, bai ebaluazio esperimentaletik, baita bizipen horiek izan dituzten haurren iritzirik ere.

Haur-jolasa: kontzeptuaren bilakaera, garapenean betetzen duen eginkizunarekiko

Haur-jolasaren fenomenoaren gaineko azterlanak aresti samarrekoak diren arren, fenomeno hori antzinarotik behatua izan da. Horrela agertzen da Platonen "Legeak" obran (427-347 a.C.): bertan, jolasaren balio praktikoa aintzat harturik, hiru urteko adinetik aurrera, etorkizunean eraikitzaile izango denak tamaina txikiko benetako tresnak baliatzea komeni dela dio filosofoak.

Norabide berean, haurrek helduaroan jokatu behar duten jardueran aritzea beharrezkoa dela azpimarratu zuen Aristotelesek (384-322 a.C.). Nolanahi ere, XIX.

mendeko kondarrera arte itxaron behar zen, jolasa ikertzen duten estereotipoak lanak ikusteko; orduan plazaratu ziren fenomeno horri buruzko hiru teoria, hots, atsedendariaren teoria, soberako energia deskargatzaren teoria eta teoria olgetaren teoria. Artean, garapenean jokoak izan zezakeen rolari ez zitzaion kasik garrantzirik aitortzen baina, pixkanaka, gizakiaren garapenean haur-jolasak dituen eraginean sakonduz joango dira azterlanak.

Ikerlari bakoitzak jolasaren fenomenoari bere ikuspegi-tik begiratu dio, bere marko kontzeptualen arabera; haurra jolastera bultzatzen duten arrazoiez eta horrek denak gizakiaren garapenean dituen funtzioez sako-neko motibazioen gaineko tesiak era askotakoak izan dira. Marko horiek, zenbaitetan elkarren aurkako tesiak lantzen dituzten arren, jokoaren fenomeno hainbat sailhetsetatik begiratu eta "ulertzeko" aukera eman digutenez, horren konplexutasun, aberastasun eta transzendentziara are eta gehiago gerturatu ahal izan gara. Haur-jolasen alorrean planteaturiko teoria nabarmenen sintesia 1. koadroan taxutu dugu.

1. KOADROA: JOLASAREN TEORIAK

Azalpen klasikoak (XIX. m.)	Olgetaren teoria F. Shiller.	• Jolasa, jarduera estetiko eta olgetazkoa.
	Gehiegizko energiaren teoria. H. Spencer.	• Jolasa, soberako energia deskarga.
	Atsedeneren teoria. M. Lazarus.	• Jolasaren eragin suspertzailea: jolasak atsedean hartzeko, energia berreskuratzeko balio du.
Teoria biologizistak (XIX. m.)	Aurrerapen funtzionalaren teoria. K. Groos.	• Jolasa, helduaroan bizitzarako beharrezkoak diren eginkizunak prestatzeko ariketa.
	Laburbilpenaren teoria. S. Hall.	• Jolasa ontogenian filogeniaren erreproduktzio; historiaren erreproduktzioa, aurre-historiako hominidoetatik hasi eta gaurdaino, gizaki baten historian.
Ikuspegi psikoanalitikoak (XIX. m.)	Jolasa, bizipen traumatikoen elaborazio. S. Freud.	• Jolasa, errepikapen sinbolikoaren bitartez bizipen traumatikoen elaborazioa. • Jolasteko atseginerako joera. • Jolasa, libidoaren mozorro; desiren errealizazio sinboliko eta haurtzaroko bizitza pultsionaleko deskarga-bide. • Heldu izateko desira, jolasaren eragile.

¹ E-mail: maite.garaigordobil@ehu.es
http://www.sc.ehu.es/garaigordobil

1. KOADROA: JOLASAREN TEORIAK		
Ikuspegi psikoanalitiko (XIX. m.)	Jolasa, ikurren mintzaira, ametsa bezala. M. Klein.	<ul style="list-style-type: none"> Jolasa, ikurren mintzaira, ametsa bezala. Jolasa antsietatea elaboratzeko mekanismo. Jolasaren inhibizioa ikaskuntzaren inhibizioarekin paralelo dabil. Jolasak pentsaera ordezkagarria sortu eta sustatzen du. Jolasaren balio diagnostiko eta terapeutikoa.
	Jolasa, garapenaren il-doetako bat. A. Freud.	<ul style="list-style-type: none"> Gorputzetik jostailuetara eta jolasetik lanera: jolaserako gaitasuna pixkanaka lanerako gaitasun bihurtzen da.
	Jolasa, "nia" sintetizatze jarduerak. E. Erikson.	<ul style="list-style-type: none"> Jolasaren eginkizuna: Yoico domeinua haluzinatzea. Jolasa eta hazkundera: haur-jolasak eta helduaren jokoa adiera eta funtzio desberdinak. Jolasaren esferak: autoesfera, mikroesfera eta makroesfera. Jolasa, lanabes diagnostiko eta terapeutikoa.
	Jolasa, gizakiaren esperientzia kulturalaren jatorrian. D. Winnicott.	<ul style="list-style-type: none"> Objektu trantsizionala, estreinako jolas-eskarmentua, "Ez-Ni"-aren lehen jabetza. Konfiantza, jolasaren euskailu. Jolasaren espazioa: mundu sinbolikoa, barne-munduen eta kanpo-munduen arteko esperientzia-areak. Jolasaren balio terapeutikoa. Jolasa, esperientzia kulturalaren jatorrian: objektu trantsizionalak jolasera eta honetatik gizakiaren esperientzia kulturalera.
Hainbat ikuspegitiko eredu psikogenetistak (XIX. m.)	Jolasa, errealtatea "Ni"-arekin asimilatze gisa. J. Piaget.	<ul style="list-style-type: none"> Jolasa asimilazio hutsa: sarrerako informazioa gizakiaren eskakizunen aurrean aldatzea. Jolasaren bitartez haurrak euztura mental eta pentsaera-estrukturak bata bestearen segidan sortu eta garatzen ditu. Jarduera ludikoak ingurua era kognoszitiboan ikertzeko lanabesak dira. Jolasen sailkapena, pentsaeraren ezaugarriekin loturikoa: zentzu-mugimenezkoak, sinbolikoak, arauak.
	Jolasa, aritzea eta eginkizun berri guztiguztien arakatzea. H. Wallon.	<ul style="list-style-type: none"> Jolasa, eginkizun baten ariketa librea, errealtate-prozesuan txertatu aurretik. Jolasaren transzendentzia garapen psikikoan. Jolasaren balio diagnostikoa. Jolasen sailkapena: funtzionalak, fikzioa, eskuratzea, fabrikazioa.
	Jolasa, haurraren nortasunaren auto-bere-espina. J. Chateau.	<ul style="list-style-type: none"> Jolasaren xedea: haurrak bere burua berrestea eta haurraren nortasuna frogatzea. Jolasa, gizakiaren goi mailako jardueren iturri: kultura, zientzia, artea, erlijioa... Jolasa, haurraren nortasuna behatzeko bitarteko. Jolasen sailkapena: jokoa eta jolasa.

1. KOADROA: JOLASAREN TEORIAK		
Errusiar psikologiaren ekarpenak (XIX. m.)	Jolasa eta goi mailako funtzio psikikoen garapena. L.S. Vygotski.	<ul style="list-style-type: none"> Jolasaren oinarrian, fikziozko egoerak asmatzea. Jolasa desiren errerealizazio irudipenezkoa da, desira jeneralizatuak gorpuztea. Jolasteko atsegina berehalako bulkadak gaintitzean: uko egitea, atsegin eta garapen moralaren iturri. Jolasa, garapenaren eragile. Jolasa, garapen soziala eta Niaren kontzientzia. Jolasa eta goi mailako funtzio psikologikoen garapena.
	Rol-jokoen izaera eta jatorri historiko-soziala. D.B. Elkonin.	<ul style="list-style-type: none"> Rol-jokoaren jatorri historiko edo soziala. Jolasa ez da bat-batean sortzen, heziketaren ondorioz baizik. Gizakiaren jardura eta harremanen eragina jokoan. Jokoa, rolaren eta egintzen arteko unitate organiko. Jokoaren eginkizunak garapen psikikoan: giza jardueraren inpaktu emozionala, kognizioa galtzea eta garapen morala.

Jolasaren ekarpenak garapen psikomotorrean, intelektualean, sozialean eta afektibo-emozionalean

Hainbat ikuspegi epistemologikotatik eginiko azterketek (Piaget, Vygotski, Elkonin, Freud, Winnicott, Wallon...) aukera eman digute jolasa haurraren garapenean funtsezko elementua dela ikusteko, lotura sistematikoak dituelako joko ez denaren bidez, hots, gizakiak beste hainbat alorretan —sormenean, arazoaren konponketan, rol sozialen ikaskuntzan, etc., hau da fenomeno kognitibo eta sozial ugartan— izan duen garapenari esker. Ikerlan horietako ondorioek iradokitzen dutenez, jokoa, haurtzaroko ereduak jardura hori, gizakiaren garapenak ezinbesteko jardura du, garapen psikomotor, intelektual, sozial eta afektibo-emozionala sustatzen laguntzen baitu, biziki lagundu ere. Jokoa bizitzeko premiazkoa da, haurrek ekin egin behar baitute, objektuak maneiatu eta beraien arteko harremanetan jardun: horixe egiten dute jokoa, jolasean. Era askotako jolas goiztiarra hagitz mesedegarria da gizakiaren hazkunde eta garapenarekin loturiko aspektu denetan:

• **Ikuspegi biologikotik**, garuna hazteko eragile da, nerbio-zuntzak ez baitaude oraino behin betirako euzturaturik; jolasak horiek estimulatzen eta, beraz, nerbio sistemaren bilakaera sustatzen du.

• **Ikuspegi psikomotorretik**, jolasak gorputzaren eta zentzumenen garapena sustatzen du: indarra, muskuluen kontrola, oreka, gorputza baliatzeko konfiantza, pertzepzioa... jolas-jarduerak praktikatzeko baliatzen dira.

• **Ikuspegi kognitibo edo intelektuala**: jolasean ikasi egiten da, eskarmentu berriak ezagutzen direlako, akats egin edo asmatzeko, ezagutzen dena aplikatzeko, arazoak konpontzeko aukera ematen duelako. Jokoa haurraren pentsatzeko, sormena areagotzeko gaitasunen garapena sustatzen du eta, gainera, ikaskuntza-zona potentzialak sortzen ditu.

• **Sozialitatearen ikuspegitik**, jolasari esker haurra bere berdinekiko kontaktuan jartzen delako eta, horri esker, inguruko pertsonak ezagutu, jokabide-arauak ikasi eta, truke horien markoan, bere burua deskubrituko duelako.

• **Garapen afektibo-emozionalaren ikuspegitik**, jolasak haurrari atsegina eta bizitzeko poza ematen dion, askatasunez adierazteko energiak positiboki bideratzeko eta tentsioak deskargatzeko aukera ematen dion jardura dela esan daiteke. Haurrak bizitzan topatzen dituen zailtasunetatik kanpoko babestokia da, bere esperientzia bestela lantzen (bere premien arabera egokitzen) laguntzen dio. Horrenbestez,

bere burua menderatzeko eta orekan ibiltzeko faktore behinena da.

2. koadroan ikusiko dugu jolasak garapenean dituen

ekarpenez egin diren azterlanetako ondorioen sintesiak, hots, garapen psikomotorrean, intelektualean, sozialean eta afektibo-emozionalean jolasak egin dituen ekarpenez gaur egun dakizuna.

2. KOADROA: JOLASAREN EKARPENAK HAURRAREN GARAPENEAN	
Jolasa eta garapen psikomotorra	<p>"Jolasak gorputzaren eta zentzumenen garapena sustatzen du"</p> <p>Haurtzaroan haurrak egiten dituen jolasek, gorputza, objektuak eta lagunak mugituz, funtzio psikomotorren (hau da, mugimenduaren koordinazioaren) garapena eta pertzepzioaren estruktura sustatzen dituzte. Jolas horietan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sentsazio berriak hautematen ditu. • Gorputzaren mugimenduak koordinatzen ditu (koordinazio dinamiko globala, oreka...). • Pertzepzio-ahalmena garatzen du (pertzepzio espaziala, entzumenekoa, erritmiko eta denborazkoa...). • Gorputz eskemaren irudikapen mentala egituratzen du. • Bere zentzumena eta motor-ahalmenak arakatzen eta zabaltzen ditu. • Berak sortarazten dituen eraldaketa materialen jatorrian bere burua atzematen du. • Bere gorputza eta kanpo-mundua konkistatuz doa pixkanaka.
Jolasa eta garapen kognitiboa	<p>"Jolasak egitura mentalak sortu eta garatzen ditu, sormena sortaraziz"</p> <ul style="list-style-type: none"> • Manipulazio-jolasa, pentsamenduaren garapeneko lanabesa. • Jolasa, garapen potentzialeko zonak sortarazten dituen ikaskuntzako iturri. • Jolasa, arreta eta oroimena areagotzeko pizgarri. • Jolas sinbolikoak, irudikapenekoak, deszentratze kognitiboa sustatzen du. • Jolasak irudimena, sormena sortarazi eta garatzen ditu. • Jolasean fantasia eta errealitatearen artean bereiztea sustatzen da. • Jokoa komunikazioa da eta mintzairaren garapena errazten du. • Fikzioa, pentsaera abstraktua garatzeko bide. • Jolas-programa sistematikoen eraginak (saiakuntzazko azterketak): CI, kontserbatzeko gaitasuna, perspektiba hartzea, ikaskuntzarako heldutasun-gaitasunak, pentsaera baterakoia, sormena (ahozkoa, grafikoa, motorra...), mintzaira (etekina, egokitasun linguistikoa, elkarrizketa sortzailea, istorioak kontatzeko gaitasuna...), matematika (matematikaren aritzeko trebezia, zenbakietarako gaitasuna...).

2. KOADROA: JOLASAREN EKARPENAK HAURRAREN GARAPENEAN	
Jolasa eta garapen soziala	<p>"Komunikazio eta sozializatorako lanabes ahaltua da jolasa"</p> <p>a) Irudikapeneko jolasak (sinboliko, roleko, dramatiko, fikziokoak...):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Berdinekiko komunikazioa eta kooperazioa sustatzen dute. • Helduaren mundu sozialaren ezagumena zabaltzen eta haurra lan-mundurako prestatzen dute. • Garapen moralak sustatzen dute, nori bere burua goberna dezan irakasten, borondatea eta jarduteko arauak asimilatzen irakasten dute. • Nork bere burua ezagu dezan eta kontzientzia pertsonala gara dezan sustatzen dute. <p>b) Jolas arautuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interakzio sozialeko estrategien ikastegi dira. • Oldarkortasuna kontrolatzen laguntzen dute. • Ardura eta demokratiako ariketa dira. <p>c) Jolas kooperatiboak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa sustatu, taldekideen arteko mezu mesedegarriak bultzatu eta mesede kaltegarriak urriarazi egiten dituzte. • Gizartearen aldeko jokabideak (laguntzea, elkarlanean aritzea, partekatzea...) eta berdinen arteko elkarreaginean jokabide asertiboak sustatzen dituzte. • Jokabide sozial negatiboak (oldarkortasuna, setakeria, apatia, antsietatea, lotsa...) urriarazten dituzte. • Elkarreragin eta kontaktu fisiko mesedegarriak estimulatu eta kaltegarriak urriarazten dituzte. • Klaseko jardueretan parte hartzea eta taldekideen arteko kohesioa sustatzen dituzte, ikasgelako giro soziala hobetuz. • Bestelako arrazetako kideak onartzea errazten dute. • Gainerakoez haurrak duen kontzeptua hobetzen dute. <p>d) Jolas sozial zurrumbiltsuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oldarkortasunaren sozializazioa sustatzen dute. • Egokipen sozio-emozionala laguntzen dute.
Jolasa eta garapen afektibo-emozionala	<p>"Jolasak oreka afektiboa eta buru-osasuna sustatzen ditu"</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jolasa jarduera atsegina da eta poztasun emozionala sortarazten du. • Jolasak esperientzia zailak asimilatzeko aukera ematen duenez, bizipen horiekin loturiko antsietatea kontrolatzen laguntzen du. • Jolasak haurraren oldarkortasunaren adierazpen sinbolikoa eta sexualitatea adieraztea ahalbidetzen du. • Jolasak haurraren identifikazio psikosexualaren prozesu progresiboa errazten du. • Liskarren konponketa-teknikak ikasteko bitartekoa da jolasa. • Jolas-programen efektuak: auto-onarpen, auto-estima, auto-kontzeptua, enpatia, emozionaltasun positiboa eta antzeko sentimenduak areagotzea.

Jokoa, haurtzaroko eredu-ko jarduera hori, gizakiaren garapenak ezinbesteko jarduera du, garapen psikomotor, intelektual, sozial eta afektibo-emozionala sustatzen laguntzen baitu, biziki lagundu ere. Jokoa bizitzeko premiazkoa da, haurrek ekin egin behar baitute, objektuak manelatu eta beraien arteko harremanetan jardun: horixe egiten dute jokoan, jolasean

Jolasak haurraren osoko garapenean betetzen dituen eginkizunak laburbilduz (ikus, 2. koadroa), jolasa gizakiaren garapenean jarduera behinena dela esan dezakegu. Jolasa, haurrarentzat auto-adierazteko aukera ez ezik, bere burua deskubritzeko, arakatzeko eta sentazioekin, mugimenduekin, harremanekin... saiakuntzak egiteko aukera ere bada: horiei esker, haurrak azkenean bere burua ezagutu eta munduaz iritzia moldatuko du.

Haurtzaroan gizakiak egiten dituen jarduera ludikoek aukera ematen diote pentsamendua garatzeko, beharrak asetzeko, bizipen traumatikoak bizitzeko, tentsioak deskargatzeko, sortzeko gozamina arakatu eta deskubritzeko, bere fantasiaz asetzeko, berak eskuratutakoak erreproduzitzeko, gainerakoekin harremanetan jarduteko, bere buruaren horizonteak zabaltzeko... Horregatik esan dezakegu eskola-testuinguruetan jarduera ludiko, positibo, sinboliko, eraikitzaile eta kooperatiboa estimulatzea haurraren garapena indartzearen sinonimo dela; kontuan izan dezagun, gainera, jarduera horrek prebentzio eta terapiatzeko eginkizun garrantzitsua duela.

Haurraren garapenari jolasak egiten dizkion ekarpenen ikerkuntzan hautemaniko emaitzei esker, egun hez-

kuntza eta psikologia alorreko profesional askok hainbat eratako testuingurutan (klinikoetan, ludoteketan, hezkuntza alorrekoetan, etab.) taldekako jolas-jarduerak ezartzeari garrantzi handia ematen diote, prebentziozko eta garapena laguntzeko lanabes gisa.

Jolas kooperatiboak: gizarte justuago eta solidarioagoa eraikitzeko era berria

a) Jolasa eta jolas kooperatiboak definitzen dituzten ezaugarriak

Zerk definitzen du haur-jolasa? Zerk bereizten du joko edo jolas ez denetik? Nolako bereizgarri nagusiak ditu haur-jolasak? Nolako ñabardurek mugatzen dituzte jolas kooperatiboak?

• **Jolasa atsegin-iturri da beti;** atsegina jolasak berezko bereizgarria du eta, atsegirik ezean, jolasik ez.

• **Jolasa askatasuna da;** horixe da jolasaren ezaugarri psikologiko nagusia, hots, aukera egiteko askatasuna bereizgarri duen funts psikiko orokorrean gertatzen da jolasa. Norberak hautatu behar du, behartzerik nozitu gabe. Jolasa borondatezko jarduera da, askatasunez hautatutakoa eta kanpo-hertsapenik ez du onartzen. Haurrak aske sentitu behar du, nahi duen bezala jolastuko bada: ordezkatu beharreko pertsonaia eta berori gauzatzeko baliabideak aukeratzeko aske, objektuek ordezkaturiko dutena hautatzeko aske...

• **Jolasa prozesua da,** batik bat: helbururik gabeko xedea da jolasa, motibazio eta helmuga intrinsekoak ditu eta, utilitarismoan sartzen bada edo helbururik lortzeko baliabide bilakatzen bada, jolas izateari utziko dio.

• **Fikzioa jolasak berezko osagaia du:** jolastea plantak egitea da, errealitatea imitatzea, fikzio horretaz jabeturik; beraz, jolasa jolas bihurtzen du baliabide baten trataera ez literalak, jarduera ez literalak: makila zaldia bailitzan baliatzea, aulkia gaztelu gisa...

• **Jolasa jarduera serioa da,** haurraren nortasunak pasatu beharreko proba baita; jolasean asmatzeari esker haurraren auto-estima altxatu egiten da, haurraren nortasuna berresteko lanabesa da, helduarentzat lana den bezalaxe.

Jolasa definitzen duten elementu horiez gainera, jolas kooperatiboek denen parte-hartzea, komunikazioa, adiskidetasun giroko elkarreragina eta kooperazioa inplika-

tzen dituzte. Jolas bat kooperatibotzat joa izan dadin, berezkoak dituen ezaugarriak ez ezik, beste hiru ezaugarri estruktural osagarri hauek ere izan behar ditu:

• **Parte hartzea,** jolas kooperatiboetan taldeko kide guztiek esku-hartzeko baitute, sekula ez da inor kanporatua, inork ez du galtzen behin ere; helburua talde-helmugetara iristea da eta, horretarako, jolasa burutu dadin, partaide bakoitzak ezinbesteko rola betetzen du. Hori praktikatzeko aukera denek izan behar dute eta norberak jolasean duen rola bilatu eta aurkitu behar du.

• **Adiskidantza giroko komunikazio eta elkarreragina,** jolas kooperatiboek taldearen baitan hitzezko eta hitzez bestelako komunikazio-prozesuak estrapulatu baitituzte; prozesu horiek agindurik, erne-erne aditu, negoziatu, erabakiak hartu... behar da. Horrelako jolasek taldekideen artean lagun giroko elkarreragin eraikitzaile, mesedegarri eta norabide anitzekoa estimulatzen dute.

• **Kooperazioa,** talde-helmugara iristeko, helburu komunera heltzeko jokalariek elkar laguntzera eramango dituen harreman-dinamika estimulatzen baitute jolas hauek.

Kooperazioak esan nahi du helburu komunera iristeko, laguntza eman eta hartzea izango den interakzio sozialen prozesua egon behar dela. Jolas kooperatiboetan parte hartzaileen helburuak hertsiki loturik daude, horietako bakoitza bere helmugara iritsiko bada besteek berenentara heldu behar dute nahitaez. Taldekide bakoitzak lortu nahi dituen emaitzak, beraz, berarekin interakzioan diharduten gainerako taldekideentzat mesedegarri dira, lehia-jokoetan ez bezala: hauek, partaideen helburuak loturik daude elkarren artean, baina batzuek besteak kanporatzen dituzte eta partaide bat helmugara iritsiko bada, besteek porrot egin behar dute ibilbidean.

Jolas kooperatiboetan jostalari bakoitzak bere rolaren bidez laguntzen du eta rol hori, adieraz beterik, jokoa irabazteko beharrezkoa da. Egoera horrek taldekide bakoitzaren baitan onarpen-sentimendua sortarazten du eta horrek bere auto-kontzeptuan eragin mesedegarria izaten du; aldi berean, bakoitzak gainerako taldekideez duen irudia ere hobetzen da.

Horrenbestez, jolas kooperatiboetan parte hartzaile guztiek:

• Parte hartzen dute, inor ez dago sobera, inor ez da

kanporatuko, inor ez da galtzaile;

- Jolasteko atseginagatik hartzen dute parte denek;
- Helmuga komunera iristeko dihardute elkarlanean, beren trebeziak uztartuz eta ahaleginak bateratuz;
- Gizakiz bestelako elementuen aurka dihardute lehian, beraien artean lehiatu ordez, denen artean helburu bat lortu asmoz;
- Jolasa talde-jardueratzat hartzen dute eta horrek denentzako arrakasta-sentimendua sustatzen du;
- Bizikiago gozatzen dira denak, galtzeko arriskuaren ondoriozko tentsioa eta tristezia suntsituak daudelako.

Jolas kooperatiboek porrot egiteko beldurra, galtzaile izatearen estualdia ezabatzen dute, eta jokalariek — pertsona onargarri eta duina den heinean— bere buruarengan duen konfiantza indartzen dute: sentimendu horiek, nortasuna harmonikoki garatuko bada, beharrezkoa den auto-estimazio garaiaren oinarrian dautza. Jolasteko era berri honetan, gainera, haurren balioa ez du puntuazioak suntsitzen eta horren ondorioz, bai jarduera, bai taldekideak ere positiboago ikusten dira.

Kooperatiboki jolastuz gero, partaideek partekatzen eta elkar laguntzen, gainerakoekin harremanetan aritzen, gainerakoekin sentimenduak gogoan izaten eta helmuga komunetara iristeko laguntzen ikasten dute. Horrelako jolasek talde-sentimendua estimulatzen dute, taldearen baitan kide bakoitzaren indibidualtasuna onartu dago, parte hartzaileen artean berdintasun giroko harremanak onartuak daude, adiskidantza giroko erlazio enpatiko eraikitzaileak sustatzen dituzte... Finean, taldekideen artean komunikatzea, elkar laguntzea eta partekatzea sustatzen dira.

Lehiakortasunak, gehienetan, jokoa bereak dituen atsegin eta gozamina zapuzten ditu, jokalariek ez baitute jokatzeko ongi pasatzeko, saria irabazteko baizik; orduan, galtzeko beldurrak dibertsioa eragozten duen tentsioa sortarazten du. Huts egitean jokalariek kanporatzen dituzten edo trebezia gutxienekoak zigortzen dituzten jokoen arbuio-sentimenduak pizten dituzte eta hauek, azkenean, auto-estimazioa hondatzen dute. Bestetik, kanporatua izateak eskarmentu handiagoa hartzeko eta trebeziak hobetzeko aukerak galarazten ditu, hau da, iaiotasun gutxieneko hobetzeko aukera ukatzen die.

b) Jolas kooperatiboaren eraginak haurraren garapenean

Haurraren garapenean jolas kooperatiboak izaniko era-

Jolasa borondatezko jarduera da, askatasunez hautatutakoa eta kanpo-hertsapenik ez du onartzen. Haurrak aske sentitu behar du, nahi duen bezala jolastuko bada

ginak ebaluatu dituzten azterlanen ikuskapenak auktura ematen digu ondorio hau ateratzeko: jolas kooperatiboa biziki jarduera mesedegarria da garapen pertsonal eta sozialeko faktore askorentzat. Jolas kooperatiboaren egitarauen eragin mesedegarriak aurkitu dituzten azterlanen sintesia 3. koadroan ikusiko dugu.

3. KOADROA: JOLAS KOOPERATIBOEN EGITARAUEN ERAGINAK GARAPEN SOZIALEAN	
Emaizak: Jolas kooperatiboaren egitarauen eraginak	Ikerlanak
Haurren arteko bat-bateko jokabide kooperatiboa: <ul style="list-style-type: none"> • Klasean, astialdian. • Jolas librean, jolastokian. • Jolas librean, gimnasioan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Orlick, McNally eta O'Hara, 1978. • Jensen, 1979. • Orlick eta Foley, 1979.
Partekatze jokabideak.	• Orlick, 1981.
Erantzun sozial kooperatibo.	• Mender, Kerr eta Orlick, 1982.
<ul style="list-style-type: none"> • Arraza desberdinen arteko interakzio eta onarpena. • Arraza desberdinen arteko interakzioa ez da ugaltzen jokoetan inplikaturako trebezietan taldeek alde handiak erakusten dituztenean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Rogers, Miller eta Hennigan, 1981. • Miller, Rogers eta Hennigan, 1983.
Interakzio kooperatiboa klasean, norbera eta gainerakoak onartzea, klasean parte hartzea eta ikasgelan giro ona.	• Blazic, 1986.
Jolas librean kontaktu fisiko mesedegarria eta ahozkoa ugaltzea egiten da eta kontaktu fisiko kaltegarria eta ahozko interakzio kaltegarriak urritzen dira.	• Grineski, 1991.
Laguntza, kooperazio eta talde-kohesiozko jokabideak.	• Carlson, 1999.
Ikasgelan, berdinen arteko arbuioa urritu egiten da.	• Mikami, Boucher eta Humphreys, 2005.
4-6 urtekoen egitaraua: Jokabide altruista berdinekin, pertsonen arteko arazoak konpontzeko estrategia prosozialak, arau sozialak ezagutu eta betetzea, heldutasun afektiboa edo maila ebolutiboaren arabera erantzun afektiboak emateko gaitasuna, adimen ahozkoa, ahozko jariora, ahozko sormena, sormen grafiko-figuratiboa, nortasun sortzailearen jokabide eta ezaugarriak.	• Garaigordobil, 2007.

3. KOADROA: JOLAS KOOPERATIBOEN EGITARAUEN ERAGINAK GARAPEN SOZIALEAN

Emaizak: Jolas kooperatiboaren egitarauen eraginak	Ikerlanak
6-8 urtekoen egitaraua: Jokabide sozialak berdinekin ikasgelan (lidergozko jokabidea areagotzea, sentikortasun soziala, errespetua – auto-kontrola, alaitasuna, jokabide oldarkorrak, antsietate-lotsa eta apatia-itxitasuna murriztea), kooperazioa, interakzio sozialeko estrategia kognitiboak, talde barnean kideak onartzeko harremanak.	• Garaigordobil, 2005.
8-10 urtekoen egitaraua: Berdinekin jokabide asertiboa, jokabide prosoziala, talde barnekoen arteko komunikazioaren kopuru eta kalitatea.	• Garaigordobil, 2003b.
10-12 urtekoen egitaraua: Jokabide soziala (sozialitate-arauen aurreko errespetuzko jokabidea, bulkadak kontrolatzea, lidergoa, jarrera asertiboak, jokabide prosoziala); interakzio sozial asertiboaren estrategia kognitiboak; taldekideen era prosozialagoan hautematen dira. Jokabide oldarkor eta antisozialak urritzen dira.	• Garaigordobil, 2004.
Emaizak: Jolas kooperatiboaren eta lehiakorren inpaktuen konparazioa	Ikerlanak
Jolas kooperatiboetan jokabide kooperatiboak ugaltzea eta oldarkorrak urritzen dira. Jolas lehiakorren egitaraua inplementatu ondoren jokabide oldarkorrak urritu eta kooperaziozkoak ugaltzea.	• Bay-Hinitz, Peterson eta Quilitch, 1994.
Jokabide sozial onuragarriak garaiagoak izan ziren jolas kooperatiboetan eta jokabide kaltegarri ugariago hauteman ziren jolas lehiakorretan.	• Finlinson, 1997. • Finlinson, Austin eta Pfister, 2000.
Jolas kooperatiboetako taldeek negoziazio-estrategien maila garaiagoa eta partekatze esperientzia gehiago erakusten zituzten joko lehiakorrekoekin baino.	• Zan eta Hildebrandt, 2003.
Emaizak: Jolas kooperatiboaren onurak, sozializazio eta garapen alorretan zailtasunak agertu dituzten haurren	Ikerlanak
Jokabide sozial, interakzio sozial eta partekatze gaitasuna, erlazio sozialean arazoak dituzten haurren.	• Doctoroff, 1997.
Berriazko hezkuntza-premiak dituzten edo ez dituzten ikasleen interakzio kooperatiboa.	• Nabors, 1999.
Egokipen, interakzio sozial eta komunikazio trebeziak, interakzio eta komunikazio sozialean gabeziak dituzten haurren.	• Beilinson, 2003.
Jolas kooperatiboa eta harreman sozial onuragarriak ugaltzea eta isolamenduko jokabideak urritu egiten dira (trebezia sozialeko egitarau baten barneko jokoa).	• Sato, Sato, Takayama eta Aikawa, 1993. • Sato, Sato eta Takayama, 1998.

c) Jolas kooperatibo eta sormenezkoen egitarauak Euskal Herriko Unibertsitatean: 4 eta 12 urte arteko haurrentzako lau egitarauen diseinu eta ebaluazioa

Ottawa-ko (Kanada) Unibertsitateko Terry Orlick irakaslea jolas kooperatiboekin eginiko saiakuntzen aitzindarietako bat izan zen. Kanadan, haur eta nerabeekin garatu zituen jolas eta kirol kooperatiboetan oinarrituriko esperientzia baten estreinako ondorioak 1978an agertu zituen. Orlicken lanak euskarri harturik, 1987 urteaz geroztik Euskal Herriko Psikologia eta Hezkuntza alorretako profesional talde batek, 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jolas kooperatibo eta sormenezkoen lau egitarau diseinatu, aplikatu eta ebaluatu ditugu, esperimentu gisa. Lan horri esker, haurren garapen sozio-emozionala eta sormena sustatzea helburu duen esku-hartze psikohezitzaile ildo bat osatu ahal izan dugu.

Hogei urte honetan adin-talde bakoitzarentzako (4-6, 6-8, 8-10 eta 10-12 urte) berariazko jolas kooperatiboaren egitarauak diseinatu (Garaigordobil, 2003ab, 2004, 2005, 2007) eta esperimentu gisa aplikatu izan ditugu, jolas kooperatibo eta sormenezkoen saioak astero-astero sistematikoki ikasturte osoan egin eta haurren garapenean horiek izan dituzten eraginak ebaluatu ditugula. Programak aplikatu baino lehenago eta ondoren hurrek, gurasoek eta irakasleek, esperientzia hauetan parte hartzen duten haurren garapenaren aspektu zenbait neurtzeko aukera ematen duten hainbat test psikologiko eta galdategi erantzun dituzte, ikasturtean zehar beraiengan gertatzen den aldaketa balioztatzeko.

Jolas kooperatibo eta sormenezkoen egitarauak egin zituzten haurren (talde esperimentalak) garapenean gertaturiko aldaketak, batetik, eta ikasturte horretan jolas kooperatiboaren saiakuntzan esku hartzerik izan ez zuten haurren (kontrol taldeak) aldaketa, bestetik, konparatu ondoren, emaitzak argi eta garbi adierazi duenez, garapen sozio-emozionalaren ikuspegitik, jolas kooperatiboak jokabide sozial onuragarriak (gainerakoekiko begirunezko, elkar laguntzako, auto-kontrolako, lidergoko, alaitasunezko jokabideak, jokamolde asertiboak, prosozialak, etc.), taldekideen arteko onarpenezko harremanak, auto-kontzeptuaren onarpena, egonkortasun emozionala, interakzio sozialeko estrategia kognitiboak ugaltzea sustatu zuela, bere taldekideez hurrek zuten pertzepzioa hobetu zela eta jokabide sozial kaltegarrien (jokabide antisozialak, oldarko-

rrak, itxikeriazkoak, antsietate soziala...) urritzea indartu zuela. Horiek ez ezik, ikasturte osoan jolas kooperatibo eta sormenezkoen saiakuntza egin zuten hurrek ahozko adimenaren eta ahozko eta grafiko bidezko sormenaren areagotze nabarmena ere agertu zuten.

Horrekin batera, ikasturtearen kondarrean egiten den jolas kooperatiboaren saiakuntza amaitzean egitaraua ebaluatzeko galdategi bat aplikatu ohi da. Bertan, saiakuntzan parte hartu duten hurrei galdetzen zaie orain, horrelako jokoak ezagutzen dituztelarik, jolas kooperatiboak ala tradizionalak (norbaitek irabazi eta norbaitek galtzen duen horietakoak) nahiago dituzten eta zergatik aukeratu dituzten horiek. Haurren %90ek jolas kooperatiboak nahiago dituztela adierazteaz gainera, horrelako jolasak aukeratzeko izan dituzten arrazoiak aztertzean hauek nabarmentzen dira, itxia bada ere:

- *Dibertsio handiagoa*, jolas hauekin ("Askoz ere dibertituagoak dira. Galtzen ez baduzu, gehiago dibertitzen zara. Hobeto sentitzen gara. Denak ondo daude, eta bakean. Pozik amaitzen dugu. Hobeto pasatzen dut, kooperatu egiten duzu, dibertitu egiten zara eta, gainera, ez duzu galtzen").

- *Jolaskideen arteko oldarkortasuna apaldu egiten da* ("Norbaitek galtzen badu, protestatu eta haserretu egiten da. Hemen ez dago harrokeriarik. Inor ez da haserretzen galtzearen. Bestelako jokoetan denak mandopak bezala irteten dira, irabaztera. Irabazleek ez dituzte galtzaileak umiltzen. Honela ez gara haserretzen. Ez dugu errietan egiten. Ez dago liskarrik, haserrealdirik, inor ez da sumintzen. Inork ez tranparik egiten. Horrela inork ez du eztabaidatzen. Ez dugu errieta egiten").

- *Frustrazio, tristezia edota lotsa sentimenduak urritu egiten dira* ("Horrela inork ez du galtzen eta inor ez da tristatzen. Norbaitek galtzen duenean, lotsaturik agertzen da. Hemen ez zaude tristatzen, galtzen duzunean bezala. Galtzen duzun jokoetan aspertu eta tristatu egiten zara").

- *Ongizate handiagoa, adiskideak egiteko eta ikasteko aukera handiagoa, parte hartzeko eta gainerakoen maila berean agertzeko aukera handiagoa* ("Denak berdina gara. Maila berean gaude eta inork ez du galtzen, ez irabazten. Elkarri laguntzen ikasten dugu. Ikas-kideekin elkar laguntzan aritzen gara. Lagunak egiten ditugu").

Lehia gisara planteatutako jarduerak interakzioan ol-

Lehia gisara planteatutako jarduerak interakzioan oldarkortasun handiagoa sortarazten duela ezin auzitan jar daiteke. Kooperazioan hezteak, denak —indar txikiagokoak, adimen apalagokoak, bestelakoak direnak...— hartzeko moduko gizarte justuagoa osatzeko bide bakarra da

darkortasun handiagoa sortarazten duela ezin auzitan jar daiteke. Kooperazioan hezteak, denak —indar txikiagokoak, adimen apalagokoak, bestelakoak direnak...— hartzeko moduko gizarte justuagoa osatzeko bide bakarra da. Egun, haurrak irabazteak duen garrantziaren baldintzapean hazten direnez, dibertitzeko eta ondo pasatzeko bakar-bakarrik ezin dira luzaro jolastu. Normalean batzuek besteen aurka lehiatzen dute eta horren ondorioa bakar batzuen arrakasta eta askoren porrota da. Egokiera horren azalpena ez da irudikatzen zaila: horien jokabideak, helduen munduan ikusten diren interakzio-ereduaren isla eta imitazio dira.

Eskolan jarrera kooperatiboa sartzeko ez da eginkizun erraza, denbora asko kentzen du, indar sozialek beste norabait jotzen dutelako. Halaz ere, jolas kooperatiboaren egitarauaren eraginei buruz egin diren ebaluazioek laguntzako eta kooperaziozko jokoek haurren garapenean duten betekizun latza berretsi egin dute. Esperientzia horiek, era berean, erakusten digutenez, helduek estrukturaturako saioetan hurrek kooperatiboki jolasten ikasitakoan, jolas berriak asmatzen dituztenean kooperazio-egitura horren arabera jolasten ahalegintzen dira, porrotak sortarazten duen tristezia saihestuz eta jolasaren atseginez eta erronkez gozatuz.

d) Laguntza, enpatia, kooperazioko jolasa: jolas kooperatibo eta sormenezkoen egitarauetako adibideren bat

Egitarau horietako joko-molde desberdinak adibidetzat hartzeko, lau jolas ekarri ditugu hona, egitarau bakoitzetik bana.

Jolasa: Bide oztopoduna (4-6 urte bitarteko egitarauko jokoak, Garaigordobil, 2007)

BIDE OZTOPODUNA	
Helburua: Komunikazioa. Laguntza. Enpatia.	
Garapen afektiboa	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza eman eta hartzeko atsegina, helmugara iristeko atsegina. • Kontrol emozionala: noraezean ibiltzearen ondoriozko segurtasunik ez eta beldur sentimenduei aurre egin eta gainditzea. • Beste gizaki baten egoera emozionalekiko enpatia: pertsona itsuenganako sentikortasuna. • Onarpen sentimenduak: jolasa egin dadin beharrezkoa den rol bana betetzen du partaide bakoitzak.
Garapen soziala	<ul style="list-style-type: none"> • Ahozko komunikazioa: adierazpen eta entzute aktiboko ohiturak. • Laguntzako jokabidea: itsuari lekualdatzen laguntzeko.
Garapen intelektuala	<ul style="list-style-type: none"> • Sinbolizazioa. • Arreta.

BIDE OZTOPODUNA

Jardueraren azalpena

Jostalariak binaka taldekatuko dira: bata itsua da, bestea gidaria. Ikasgelan zehar, oztopoak izango diren elementuak zabalduko dira. Gidariak ikaskide itsua ikasgelan barrena tupust egin gabe ibiltzen lagundu behar du, ahozko argibideak emanez (aurrera, ezkerretara, itzuli atzera...) aurretiaz adierazitako helmugara iritsi arte. Bikotea helmugara ailegatutakoan, rolak aldatu eta orain irteerarako ibilbidea egingo dute, atzera. Jolas hau, haur hezkuntzako azken ikasturtea amaitzean egin dadin iradokitzen dugu. Lehenagoko adin-maila batean eginenez gero, gidariak itsuari eskua emango dio, ibiltzen laguntzeko.

Eztabaida

Nola sentitu zarete jolasean? Ondo pasatu duzue? Oztopoz jositako ikasgelan barrena ibiltzean, tupust egiteko beldurrik izan al duzue? Ikaskidea laguntzean zer sentitu duzue? Eta hark lagundu zaituenean? Maiz egin duzue tupust edo estrapozu? Hori gertatzean nola sentitu zarete? Nola sentitzen dira ikusi ezin duten pertsonen, zuen ustez?

Materialak

Benda bat jokalariko, begiak estaltzeko.

Denbora

30 minutu

Talde estruktura

PR



Jolasa: Osagarriak

(6 – 8 urte bitarteko egitarauko jokoa, Garaigordobil, 2005)

OSAGARRIAK

Helburua: Komunikazioa. Kooperazioa. Emozioen adierazpena. Sormen dramatikoak.

Garapen afektiboa

- Igartzeko atsegina eta antzeztean atsegina.
- Adierazpen emozionala, dramatizazioaren bitartez.
- Onarpen sentimenduak: jokoa egiteko beharrezkoa den rola betetzen du parte hartzaile bakoitzak.

Garapen soziala

- Ahoz bestelako komunikazioa: entzute aktiboko ohiturak.
- Kooperazioa: gertakaria bikoteka antzeztea.
- Garapen morala, bulkaden auto-kontrola: rola antzeztea eta beste hainbat rolaekin koordinatzea.

Garapen intelektuala

- Sormen dramatikoak: jarioa, orijinaltasuna, konektibitatea, adierazkortasuna.
- Sinbolizazioa.
- Pentsamendu asoziatiboa: objektuen arteko loturak.
- Arreta.

Garapen psikomotorra

- Funtzio psikomotorrak: adierazpen psikomotorra, gorputz eskema...

Jardueraren azalpena





Parte hartzaileak bi ilaratan ipini dira, elkarren aurrean, bi metroko tartea utzirik. Lehen ilarakoek pertsonaiak antzeztuko dituzte eta, horretarako, pertsonaiaren izena eta horren irudikapen grafikoa edo marrazkia agertzen dituen kartatxo bat jasoko du bakoitzak. Bigarren ilarakoek, osagarriak alegia, pertsonaia horien osagarrien izenak eta horien irudiak dituzten kartatxoak jasoko dituzte. Lehen ilarakoek, banan-banan erdialdera irten eta, mimo eta onomatopeien bitartez, pertsonaia horri dagokiona antzeztuko dute (motorista = motorra arrankatu eta eramatea...), bigarren ilarako jokalaria bere osagarria (motorista: motorra) dela konturatu arte. Osagarri batek pertsonaia identifikatzen duenean ozen esango da, adibidez: "Zu motorista zara, ni motorra": erdi aldera irtengo da bere pertsonaiaarekin eta minutu batez biek gertakari bat antzeztuko dute, batera. Ondoren, lehen ilarako bigarren jokalaria irtengo da eta horrela, pertsonaia eta osagarri guztiak bikoteka elkartu arte.

Pertsonaia eta osagarriak: toreatzailea/zezena, motorista/motorra, orkestra zuzendaria/batuta, jostuna/guraizea, ile-apaintzailea/orrazia, ama/ninia, margolaria/brotxa, maisua/liburua, suitzailea/sua, doma-dorea/lehoia, txirindularia/txirinda, futbolista/baloia, artzaina/ardia, Tarzan/tximinoa, idazkaria/ordenagailua, arkularia/diana, gidaria/bolantea, langilea/eskorga, nekazaria/aitzorra, bakeroa/zaldia, arrantzalea/arraina, hindua/sugea, baserritarra/oiloak, sendagilea/gaixoa/anbulantzia...

Eztabaida

Pertsonaia eta osagarriekin jolastean ondo pasatu al duzue? Zaila izan al da pertsonaia edo osagarria antzeztea? Zein pertsonaiak harritu zaitu gehien? Nola sentitu gara antzez lanean? Bikotea osatzen zaila izan al da? Eta harekin antzezpen lanak egitea?

OSAGARRIAK

Materialak	Denbora	Talde ekturktura
Kartak, pertsonaien eta osagarrien marrazkiak erakutsiko dituztenak.	30 minutu	GG
<p>Arkularia</p> 	<p>Diana</p> 	
<p>Domatzailea</p> 	<p>Leoia</p> 	

Jolasa: Mezu misterioitsuak
(8-10 urte bitarteko egitarauko jolasa, Garaigordobil, 2003)

MEZU MISTERIOTSUAK

Helburua: Komunikazioa. Kooperazioa. Ahozko sormena.	
Garapen afektiboa	<ul style="list-style-type: none"> • Mezu burutsuak asmatzeko atsegina. • Mezuak asmatu eta helmugara iristeko atsegina. • Umore sena. • Onarpen sentimenduak: jokoaren helmugara iristeko beharrezkoa den rol bat betetzen du jolaskide bakoitzak.
Garapen soziala	<ul style="list-style-type: none"> • Ahozko komunikazioa: entzute aktiboko eta adostasunez erabakiak hartzeko ohiturak. • Kooperazioa: jolasa osatzea eta mezuak asmatzea. • Talde kohesioa: taldeko kide izatearen sentimendua.
Garapen intelektuala	<ul style="list-style-type: none"> • Ahozko sormena: malgutasuna, orijinaltasuna. • Analizatzeko eta sintetizatzeko gaitasuna: osotasunaren eta zatien arteko erlazioak.

MEZU MISTERIOTSUAK

Garapen psikomotorra	• Funtzio psikomotorrak: koordinazio ikus-motorra, ikuspen pertzepzioa.	
Jardueraren azalpena		
<p>Bi fase ditu jolasak. Lehendabizi, jolasteko materiala moldatzen da: horretarako, jolaskideek mezu umoristikoak, atseginak, harrigarriak osatu behar dituzte (gerora beste taldeetako kideek asmatu beharko dituztenak). Lehenik eta behin, bost jolaskideko taldeak osatutakoan, talde bakoitzari folio bana entregatuko zaie, bertan mezuak idatziz idatzaten, kartoixka zuri bat, errotuladore beltz bat, hitzak ebakitzeko guraize bat eta bost kartazal zuri.</p> <p>Jolasaren lehen fase honetan, talde bakoitzak, taldekide guztiek bertan parte hartuz, bost mezu (ahal dela, azkar edo burutsuak) asmatu behar ditu. Bost mezuek, denera, ez dute izan behar 25 hitz baino gehiago baina baliteke mezu bat zazpi hitzek osatutakoa izatea eta besteak hiru hitzek soilik; ez da derrigorrezkoa hitz kopuru berbera izatea mezu denek.</p> <p>Ondoren, mezuak kartoixkan idatziko dira tamaina bereko letra larriz eta bost mezuak osatzen dituzten hitzak ebakiko dira.</p> <p>Hurrengo urratsean, kartazal bakoitzean bosna hitz sartuko dira. Kartazal bakoitzean esaldi edo mezu desberdinetako hitzak edukiko ditu. Taldeek jolasa moldatutakoan, bere kartazal sorta beste taldeko batekin trukatu du.</p> <p>Bigarren fasean mezuak asmatu behar dira: talde bakoitzak beste talde batek osaturiko bost kartazal jasoko ditu. Jolaskide bakoitzak kartazal bat hartuko du; kartazal horretan dauden hitzekin ezinezkoa da esaldirik osatzea. Eta bost kartazalaren dauden hitzekin, beste taldeak asmatu dituen esaldi edo mezuak asmatu behar ditu.</p> <p>Jokalaria bakoitzak mezu bana osatu behar du baina, horrela egiteko, taldekideei hitzak eman eta jaso ahal izango dizkie, hots, beste jokalariekin elkarlanean jardun behar du, helburu komuna lortzeko: hitzik alferrik galdu gabe, mezuak berriro osatzea. Taldekideek beraien artean hitz egin dezakete baina ezin diezaiekete hitzik eskatu beste taldekide bati: beste horrek aitortu behar du hitz bat ongi doakiola eta orduan eman ahal izango dio.</p>		
Eztabaida		
<p>Mezuak asmatzean denok hartu duzue parte? Taldekide guztien ekarpen denak jaso al dira? Lehendabizi asmatu eta ondoren deskubritzea zaila izan al da? Asmatu diren mezuak zuen gustukoak al dira? Zein izan da harrigarriena, atseginena, orijinalena...?</p>		
Materialak	Denbora	Talde ekturktura
Folio bat, pusketa bat kartoi zuri, errotuladore beltza, guraizea eta bost kartazal zuri txiki, talde bakoitzeko.	45 minutu	PG-GG


Jolasa: Espezieen bilakaera berria
(10 – 12 urte bitarteko egitarauko jolasa, Garaigordobil, 2004)

ESPEZIEEN BILAKAERA BERRIA	
Helburuak: Komunikazioa, Kooperazioa, Sormen plastiko-erakitzailea.	
Garapen afektiboa	<ul style="list-style-type: none"> Sortzeko atsegina: lorpen eta menperatze sentimenduek auto-kontzeptua hobetzen dute. Sentikortasun estetiko artistikoa. Onarpen-sentimenduak: jokoaren egiteko beharrezkoa den rol bana du jolaskide bakoitzak.
Garapen soziala	<ul style="list-style-type: none"> Ahozko komunikazioa: entzute aktiboa eta erabakiak hartzeko ohiturak. Kooperazioa: material grafikoaz baliaturik, animalia berri bat asmatzea. Talde-kohesioa: taldeko kide izatearen sentimenduak.
Garapen intelektuala	<ul style="list-style-type: none"> Sormen plastiko-erakitzailea: jariakortasun, malgutasun, orijinaltasun, konektibotasun, fantasia. Ingurunea eraldatzeko gaitasuna. Sintetizatze gaitasuna: zatiak integratuz, osotasuna moldatzea. Mintzaira: adierazpena eta ulermena. Sinbolizazioa. Arreta.
Garapen psikomotorra	<ul style="list-style-type: none"> Funtzio psikomotorrak: ikuspen-motor alorreko koordinazioa, ikusmen-pertzepzioa, esku-trebezia...
Jardueraren azalpena	
<p>Taldea bospasei kideko ekipotan sailkatuko da. Ekipo bakoitzari material hau emango zaio: animalien era askotako material grafikoak (argazkiak edo marrazkiak), DIN-A3 folio zuria bat eta kola-barra bana, guraize bat parte-hartzaile bakoitzeko.</p> <p>Jokoaren muina da, denen artean, animalia espezie berri bat asmatzea. Horretarako, ekipo bakoitzeko kideek animalia argazkiak hautatu eta ebaki behar dituzte, animalien atalak bereiziz: belarriak, hankak, begiak... Hainbat animalien gorputz atal ugari dituztenean paperean itsasten hasiko dira, asmatutako animalia berri bat animalia ezagunen atalekin moldaturikoa osatzeko.</p> <p>Ekipoak sortze-lana amaitu duenean animalia horren izena ere asmatu eta horren deskribapen labur bat egin beharko du; adibidez, lehorrekoa, itsastarra edo airekoa den, zer jaten duen, non bizi den, nolako oihua egiten duen... Ondoren, ekipoak talde handian bilduko dira, sorturiko animaliak paretan itsatsiko dira eta ekipo bakoitzak gainerakoei bere animalia aurkeztuko die, horren azalpena eginez.</p>	
Eztabaida	
<p>Animalia berria asmatzea atsegingarri izan al da? Bera osatzeko ideiak eman al dituzue denok? Nola antolatu zarete? Nola aukeratu duzue izena? Hasiara-hasieratik bazenekiten zer nahi zenuten ala joan ahala inprobisatu duzue? Denetatik zein aukeratu zenukete maskota? Zein da beldurgarriena? Zein dira bitxienak?</p>	

ESPEZIEEN BILAKAERA BERRIA

Materialak Animalia espezieen inguruko era askotako material grafikoak (argazkiak edo marrazkiak), DIN-A3 folio bat eta kola-barra bana, taldeko. Guraize bat parte-hartzaile bakoitzeko. Argazki-kamera.	Denbora 60 minutu	Talde estruktura PG-GG
---	-----------------------------	----------------------------------

10-11 urte bitarteko hurrek eginiko produktuak. Adibideak:

Animalia berriaren izen eta ezaugarriak	Animalia berrien irudiak
<p>Munitiak: labean erre berri edo maria bainuan egositako gizakiak jaten ditu planeta ezezagun batean bizi den animalia honek. Muniti baten aurrean suertatzen bazara, ilaran jarri behar duzu, labean sar zaitzan. Hamar kilorainoko pisua izan dezake eta, batean, bost kilo ere gizen daiteke bi metro luze den sexu gabeko animalia hau. Planetako nagusiak dira munitiak.</p> <p>Tocko-Tocko dantzaria: ikusten denez, bere belarri eskergez baliatuz hegan ibil daiteke. Arkatzaren tamainako intsektua da eta Madagaskarren bizi da. Leihoz leiho dabil gauez, dantzari. Mototsetik argi izpi bat igortzen dute: ia ez da ikusten baina gidari baliagarria da. Intsektuak janez elikatzen da. Legenda batek dioenez, izaki horrek duen maitagarriak zakutotan eramaten ditu tocko-tockoak jaiotzean. Ilbeteko gauean agertu ohi da eta erabateko mitoa da.</p>	

Erreferentzia bibliografikoak:

Jolas kooperatiboetan esku-hartzeko egitarauak

- Garaigordobil, M. (2003). *Intervención psicológica para desarrollar la personalidad infantil: Juego, conducta prosocial y creatividad*. Madrid: Pirámide.
- Garaigordobil, M. (2003). *Programa Juego 8-10 años. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 8 a 10 años*. Madrid: Pirámide.
- Garaigordobil, M. (2004). *Programa Juego 10-12 años. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 10 a 12 años*. Madrid: Pirámide.
- Garaigordobil, M. (2005). *Programa Juego 6-8 años. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 6 a 8 años*. Madrid: Pirámide.

- Garaigordobil, M. (2005). *4-12 urte bitarteko haurren garapenerako kooperazio eta sormen jokoak*. Bilbo: Ibaizabal.
- Garaigordobil, M. (2007). *Programa Juego 4-6 años. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 4-6 años*. Madrid: Pirámide.

Jolas kooperatiboen egitarauen ikerkuntza

- Garaigordobil, M. eta Fagoaga, J.M. (2006). *Juego cooperativo para prevenir la violencia en los centros educativos: Evaluación de programas de intervención para educación infantil, primaria y secundaria*. Madrid: Centro de Publicaciones del Ministerio de Educación y Ciencia.

Jolas kooperatiboak

Pascal Deru

Jolas kooperatiboen aditua. Casse Noisettes aldizkariaren sortzailea eta arduraduna. Bruxelles.

Gehienetan, talde-jolasak jokalaria batek irabaztean amaitzen dira. Gainontzekoak galtzaile bihurtzen dira eta beharbada, porrota gutxituko dute haien artean mailakatuz: bigarren, hirugarren, laugarren... Batzuentzat, modu bat da ez agertzeko ez galtzaile, ez azken. Izan ere, haur askorentzat, galtzea esperientzia mingarria da.

Hala ere, badira guztiz bestelako erregistroan jarduten duten jolasak: jolas kooperatiboak dira. Horietan, jokalariek denek partekatzen dute irabaztearen edo galtzearen esperientzia. Garaipenean edo porrotean den elkartasun horrek guztiz aldatzen du jolasarekiko pertzepzioa.

Garrantzitsua iruditzen zait, argitasunaren izenean, jolas hau testuinguru orokorragoan kokatzea.

Izan ere, jolas kooperatiboek ez dute zentzurik ez bada jolas adiskidetsuen baitan. Jolas adiskidetsuaren helburua elkarrekin atsegin hartzea da, eta helburu hori irabaztearen edo galtzearen gainetik dago. Ono pasatzeko jolasten dugu, ez inor garaitzeko. Hala ere, ez da erraz barneratzen den ikuspuntua; batez ere konkurrentzian oinarritutako jendarte batean, non denak bideratzen dituen haurrak eta helduak lehiakor izatera.

Konparazio baterako, eta atsegin ematen diguten beste esparru batzuetara joz, elkarrekin egindako otorduez edo beste batzuekin egindako bidaiez hitz egin dezakegu. Otorduen kasuan, haurra mailaka

doa janaria exijituzetik mahai inguruan beste batzuekin egoteaz gozatzen. Janariak berak elikatu egiten du, baina elkartzeak ere bai: dena ondo doanean, elkartze horretan partekatu egiten da, barre egiten da; eta zalantzarik gabe, hori guztia ere elikadura da, giro adiskidetsuaren ondorioz. Gehienetan, mahai inork ez du jaten edo edaten besteei irabaztearen. Era berean, bidaia batean, bidaia-kideak ez dira lehiatzen ea zeinek egin bisita gehiago edo zeinek bildu oroigarri gehiago (nahiz eta batzuek nahiago izan hori): elkarrekin esperientzia bat bizitzeak eragiten du bidaiatzearen gozamenak, eta bidaiak uzten dituen oroitzapenak.

Gure jolasak erregistro berean koka daitezke... baina haien oinarrian dagoen sistemak (irabazleak bilatzeak) norabide hori iraultzearekin egiten die mehatxu etengabe, eta adiskidantza haustearekin: atsegina ez da gehiago neurtzen elkarrekin une atsegina pasatzearekin... ezpada jolasaren azken helburuaren arabera: irabaztea!

Egoeratik apur bat urrunduta, konturatu beharko ginateke zein absurdua den halako egoera. Elkartzearen aberastasuna eta atsegina ezerezten dugu amaierara murriztuta: batzuen garaipena eta beste batzuen porrota. Kasu horretan, lehia bere roletik ateratzen dugu eta bere esku uzten dugu araua ezartzea. Lehia ez litzateke izan behar tresna bat baino hainbat egoera sortzeko: aldaketak eragin, negoziatu, irudimena bultzatu, estrategiak garatu... eta hara non bihurtzen den kaleitsu bat jolasaren balio guztia

azken unera lotzen duena. Gure jendartean sarri gertatzen den aldaketa da. Berehala okertzen du jolasaren zentzua... eta halakoetan, ona da azpimarratzea jolasaren alde garrantzitsua zein den: elkarrekin une atsegin bat pasatzeko ari al gara jokatzeko?

Jolas kooperatiboak ez dira bakarrak sen on hori gogorarazten digutenak. Badira beste jolas batzuk oinarrian besteei entzutea dutenak, konfiantza, norbere burua indartzea, begirada positiboa eta ametsa; halako jolasen bidez, haurrek eta helduek ikasten dute pertsonon hainbat jardueraren helburua (tartean jolasena) atsegin hartzea dela, ez zorigaitza eragitea.

Beraz, erlatibizatu egin behar da jolas kooperatiboen garrantzia, nahiz eta funtsezkoak iruditzen zaizkidan egoera orekatzeko eta adiskidantzara hurbiltzeko. Jolas kooperatiboak ikuspegi zabalagoaren baitan daude txertaturik, eta ez dira emankorrek ez badira lotzen eta indartzen beste jarduerak batzuekin.

Jolas kooperatiboaren hatsarre nagusia da jokalariek elkartzea erronka bati aurre egiteko. Baliabideak partekatzen badituzte eta elkarri laguntzen badiote, garaitzeko aukerak areagotu egiten dira. Intelektualki ondo ulertu ohi den kontzeptua da; jendeak ideia harrrapatu duela esaten du... baina praktikara eramateko eskatzen zaienean, nolabaiteko zailtasunak izaten dituzte gauzatzeko.

Jolas asko eta mahai-joko gehienak lehiari oinarritzen dira. Horra arte... ez dago zer esanik! Arazoa ez da, izatez, lehia... ezpada beste printzipio bat hari lotzen zaiona eta agerian utziko duguna ondoko ariketan.

Nik ematen ditudan formazio-saioretan, askotan eskatzen diet parte-hartzaileei jolas ezagun hau aztertzeko: aulki-dantza. Agerian geratzen da jolasak aurrera egiteko, beharrezkoa dela jokalariek eliminatzea azkenean bakar bat geratu arte: irabazlea. Jolas hori atsegina da eta onartu beharra daukagu gure gozamenak bat egiten duela batzuetan eliminatzearen espiralarekin.

Kontua ez da halakoak salatzea, ezpada hausnartzea ea posible den aulki-dantza moldatzea eta eliminatzearen kontrako printzipiora egokitzea, jostagarri izateari utzi gabe. Eliminatzearen kontrako printzipioa integrazioa da. Posible al da jolasa birplanteatzea indar zentrifugo horren gainean eta jostagarri

Lehia ez litzateke izan behar tresna bat baino hainbat egoera sortzeko: aldaketak eragin, negoziatu, irudimena bultzatu, estrategiak garatu... eta hara non bihurtzen den kaleitsu bat jolasaren balio guztia azken unera lotzen duena

izaten jarraitzea?

Egin ezazue ariketa eta ohartuko zarete proposatutako ideiek, hain zuzen ere, areagotu egiten dutela jokatzearen plazera. Gehienetan ematen den ideia honakoa da: eman diezaiegun nolabaiteko rola eliminatzen direnei (musikaz ardura daitezke, aulkiak ken ditzakete, hurrengo galtzaileak ordezkari ditzakete, e.a.). Baina beharrezkoa da konturatzea horiek guztiak ez direla kontsolamendu tristeak baino, eta eliminatutako jokalariek jolastik kanpo geratzen direla, modu batean edo bestean.

Integrazioa bada bilatzen den balioa, ezin da inolaz ere jokalariek eliminatu. Jatorrizko jolasean bezala, aldi bakoitzean, animatzaileak aulki bat kenduko du, baina araua honela moldatuko du: musika gelditzen denean, jokalaria guztiak eseri behar dira gelditzen diren aulkietan, eta beharrezkoa bada, bat baino gehiago aulki bakoitzean.

Praktikan jarriz gero, ikusiko duzue halako erronkak atsegingarriagoak direla aulki-dantza klasikoa baino. Zenbat eta aulki gutxiago, orduan eta ahalegin handiagoa egin behar dute taldekideek elkartzeko eta irudimena lantzeko, gelditzen diren aulkietan kokatuko badira(1). Horrela, bat edo bi baino ez daudenean, kooperazioaren balentriak txundigarri bihurtzen dira, jokalaria bakoitzaren irudimenak, entzuteko gaitasunak, segurtasunak eta konfiantzak suspertuta.

Gaur egun, haurrek barneratuta dituzte lehia-jokoek haiengan erein dituzten balioak: indartsuena izatea,

Nolanahi ere, jolas kooperatiboak ez dira ur tanta bat baizik elkartasunaren errotrari eragiten. Ez dute zentzurik ez badira indartzen elkarlanerako beste aukera batzuekin eta badira txertatzen testuinguru zabalagoan

lehenengoa, onena. Jolasetik jolasera, Monopolyaren ereduarekin ari direnek bizitza ikusteko modu bat barneratzen dute: plazera inor baztertuta lortzen da, gairaituta eta ahal dela, toki onenak hartuta. Nolako herritarrak atera daitezke eskola horretatik, ez bada lehenik beren interesak jartzen dituzten borrokalariak?

Aldiz, egitura solidarioetan oinarritutako jolas ugari proposatuta, erreflexu kooperatiboak indartuko ditugu haur horiengan; horrek bide emango die etorkizunean jendarteko arazoak beste ikuspegi batetik aztertzeko. Berritortu diot: ez dira garrantzitsuak jolasen gaiak... ezpada nola dauden egituratuta eta nola eskatzen eta trebatzen duten jokalarien adimena eta irudimena. Baldin eta jokalariek ikusten badute piratak, bakteriak, herensugeak edo beste mehatxuren bat garaitzeko indarrak elkartu behar dituztela, esperientzia horrek eragin sakona izango du bizitzako egiazko erronkei aurre egiten dietenean.

Ez da horren garrantzitsua jolasaren gaia zein den gai horrek jokalariek mahaiaren inguruan biltzen baditu, eta aukera ematen badie gustura aritzeko helburu komunak lortzeko. Edozein haur normalek behar du hautua pirata-jolas baten eta hortz-higieneari buruzko beste baten artean. Eman diezaiegun liluratzen dituen hori, alde batera utzita gai arrazistak eta onartezinak, baldin eta horrek elkar hartzera eramaten baditu, solidario egingo dituzten arauak deskubritzen badituzte.

Nolanahi ere, jolas kooperatiboak ez dira ur tanta bat baizik elkartasunaren errotrari eragiten. Ez dute zentzurik ez badira indartzen elkarlanerako beste au-

kerak batzuekin eta badira txertatzen testuinguru zabalagoan.

Ez du ezertarako balio jolas kooperatiboetan aritzekak, ez badugu eguneroko bizitzara eramaten eskarera horien oihartzuna: taldean aukeratu eta erabakitzea; rolak banatzea, ez elkarri aurre egiteko, elkarrena osatzeko baizik; sinestea gehiago irabazten dela elkartuta elkarri aurre eginda baino.

Nola erabakitzen dugu familian nora joan oportetean edo zer egin asteburuan? Nola banatzen ditugu etxeko lanak? Benetan sinesten al dugu jarduera batzuk aberasgarriagoak direla elkarrekin eginda bakoitza bere aldetik arituta baino?

Jolas kooperatiboetan egin dezakegun aurkikuntza nagusietako bat honakoa da: lehia-jokoan, nire lehia-kidearen trebetasun guztiak dira mehatxua niretzat. Azkarragoa bada, abiaduran irabaziko dit. Ni baino maltzurragoa bada, amarruak prestatuko dizkit... Aldiz, jolas kooperatiboan, bestearen trebetasun guztiak oparia dira taldearentzat, eta mesfidati aritu eta trebetasun horiek murrizten saiatu beharrean, poztu egiten naiz haiengatik, nahi ditut eta aberastu egiten naiz haiekin.

Era berean, jolas kooperatiboak bide ematen du beste modu batean jokatzeko: elkarrekiko laguntza norabide guztietan gertatzen da: handienak txikiari laguntzen dio, baina egoera batzuetan, handienak ere behar du txikiaren laguntza. Horrela, beharren arabera, batzuetan txikiena dena beste batzuetan handiena izango da. Mehatxuaren erresumatik irten gara eta bilgunearen erresuman sartzen gara; eta mehatxuak atzera egiten duenean, ahulguneak agerian utz daitezke eta laguntza jaso dezakete.

Jolas kooperatiboek hainbeste bizipen sustatzen dituzte, non batzuetan interesgarria den hitzez adieraztea. Partida bat amaitzean, guraso zein animatzaile gisa, jakin dezagun partidara "itzultzen" eta esaten ona izan dela denek elkarrekin jokatzeko. Azpimarra ditzagun hitz horiek sinbolo batekin (galletak, edariak...) axola diguna azpimarratzeko: irabazi ala galdu, garrantzitsuena elkarrekin igaro dugun denbora on hori dela, zeinetan bakoitzak partekatu egin dituen bere trebetasunak, imajinazioa eta baliabideak. Are gehiago, gai bagara, errepika ditzagun jokalariek bakoitzarengandik atentzioa eman diguten keinu, ekintza edo hitz positiboak: "Ze ondo etorri zaidan zu

Beharren arabera, batzuetan txikiena dena beste batzuetan handiena izango da. Mehatxuaren erresumatik irtetzen gara eta bilgunearen erresuman sartzen gara; eta mehatxuak atzera egiten duenean, ahulguneak agerian utz daitezke eta laguntza jaso dezakete

askatzera etorri izana!", "Sekulako ideia izan duzu; galdu genuela uste genuen, baina jarraitu egin ahal izan dugu", "Eskerrak oraindik baliabideak zenituen eta banatzea lortu duzun!".

Horrela, onartzen dugu taldearen garaipena ekimen jakin batzuen emaitza izan dela, eta ekimen horiek opariak izan direla taldearen iraupenerako.

Hitz horiek emankorrak dira. Behin bizitakoa berriro bizitzea eragiten dute; esker oneko hitzak dira eta zoriona ekarri duten ekintza garrantzitsuen aztarna argi eta kontzientea uzten dute jokalarientzat.

Eta zoriona sarri gogoratzen da.



<http://www.iparragirre.org/fotos/koop2.jpg>

Jolastuz ikasten dugu

Saioa Uriarte

Arrasate Herri Eskola¹. Arrasate

Jolasa haurren izaerari hertsiki loturik dago. Are gehiago, funtsezko osagaia da haurren garapenean, izan ere, lotura du gizakiak beste alor batzuetan duen garapenarekin, hala nola sormenean, arazoan ebazpenean, rol sozialen ikaskuntzan... Jolasa haurtzaroko jardura nagusia izanik, giza garapenerako ezinbesteko jardura da eta eragin itzela du garapenean, alorra edozein dela ere, psikomotorra, intelektuala, afektibo-emozionala edo soziala. Hain da horrela, ezen pentsatzen baitugu haurra jolasean ez dabilenean gaixo dagoela.

Jolasak haurren garapen integralari egiten dizkion ekarpenak aintzat hartuta, esan daiteke nahitaezko eta ezinbesteko jardura dela giza garapenari begira. Jolasa haurarentzat ez da bere burua adierazteko modu bat soilik, autoaurkikuntzarako, miaketarako eta esperimenturako aukera ere bada, sentsazioen, mugimenduen eta harremanen bitartez. Horiei esker, gainera, bere burua ezagutzen du eta munduari buruzko kontzeptuak osatzen ditu.

Haurtzaroan egiten dituen jardura ludikoei esker, haurrak pentsamendua garatzen du, beharrak asetzen ditu, esperientzia traumatikoak gainditzen ditu, tentsioa arintzen du, miatu eta aurkikuntzak egiten ditu, gainekoekin harremanak izaten ditu, bere aukerak zabaltzen ditu... Horregatik guztiagatik, baiezia daiteke haurren garapena sustatzeko modua dela eskolan eta eskolaz kanpo jardura ludiko, positibo, sinboliko, eraikitzaile eta kooperatiboa bultzatzea. Jardura horrek, gainera, prebentzio funtzioa eta funtzio terapeutikoa ere badu. Ezinbestekoa da jolas-programak gidatzen

dituen pertsona helduak jolasa sakonetik ulertzea; hartara, hezkuntza proiektuak denik eta eraginkortasunik handiena baitu.

Hori guztia aintzat hartuta, Arrasate Herri Eskolako irakasle taldeak honen aldeko apustua egitea erabaki zuten. Honetarako, irakasle talde osoak jolas kooperatiboan inguruko formazio teoriko-praktikoa jaso izan du urtero. Horrenbestez, aurtengo ikasturtean erabaki genuen eskolako curriculum proiektuan txertatzea eta ondorioz gela guztietan era sistematikoan lantzea. Horretaz gain, erabaki zen jolas kooperatiboei astero bi saio eskaintzea era sistematikoan harremanetarako zailtasun handiagoak edota gatazkatsuagoak ziren gelatan.

Programazioa ezberdina da gela guztietan. Izan ere, gela bakoitzak dituen beharrak ezberdinak izateaz gain, bizitza etengabeko mugimenduan dagoenez, gela bakoitzak bizi duen momentua etengabe aldatuz doa eta horrekin batera, dituen beharrak ere bai.

Saio bakoitzean gelako tutorea eta behatzailea egoten da. Azken figura hau ezinbestekoa dela iruditzen zaigu, ikasleen artean ematen diren mugimenduak behatzea baitu ardura nagusia. Eta tutoreak eta behatzaileak saioaren inguruan egiten dituzten ekarpenak aztertuz, ondorengo saioetan, jolas mota eta hori nola landu erabakitzen dute. (taldekatze modua librea edo proposatua...).

Jolas kooperatiboak noiz eta zertarako?

• **Ikasturteari hasiera emateko:** opor luzeak pasatu

ondoren taldea berriro elkartzen da irailean. Behar bada, ikasle berriak egongo dira taldean, ikasleren bat edo beste faltako da, irakasle berria izango dute zenbaitetan... Egoera berri honi hasiera ona emateko, aurkezpen jolasak, alegia, talde kohesioa lantzen duten jolasak era intentsiboan lantzen ditugu batez ere, nahiz eta autokonfidantza eta kooperazioa lantzen dutenak tartekatzen ditugun eguneroko saioetan.

Aurtengo egoera berria izan da guretzat, izan ere, ikasle berri asko hartu ditugu gure eskolan herriko beste eskola bateko itxieraren ondorioz. Horregatik, eta harreara egoki bat egin nahian, ikasgela guztietan jolas kooperatiboak egunero hamabost egunean zehar egitea izan zen gure erronka.

• **Ikasturtean zehar:** Ikasgelako harreman sarea ezberdina da gela guztietan. Horregatik, jolas kooperatiboak oso tresna baliagarria dela uste dugu ikasleen arteko harremanak nolakoak diren ezagutzeko. Jolas kooperatiboan bidez ikasgelan harremanen erradiografia

Jolasak haurren garapen integralari egiten dizkion ekarpenak aintzat hartuta, esan daiteke nahitaezko eta ezinbesteko jardura dela giza garapenari begira. Jolasa haurarentzat ez da bere burua adierazteko modu bat soilik, autoaurkikuntzarako, miaketarako eta esperimenturako aukera ere bada, sentsazioen, mugimenduen eta harremanen bitartez



Josune Etxaberen argazkia

¹Uribarri, 36. 20500 ARRASATE. Tfona: 943-79.77.74
Helbide elektronikoa: arrasateesk@gieskola.net

Programazioa ezberdina da gela guztietan. Izan ere, gela bakoitzak dituen beharrak ezberdinak izateaz gain, bizitza etengabe-ko mugimenduan dagoenez, gela bakoitzak bizi duen momentua etengabe aldatuz doa eta horrekin batera, dituen beharrak ere bai.

bat atera daiteke, eta hau bizitza etengabeko aldaketa dela ahaztu gabe, abiapuntu bezala hartu dezakegu gure jolasen programazioa egituratzeko.

• **Ikasturtean zehar ikasle berriak ikasgelan integratzen direnean (etorkinak, eskolaz aldatzen direnak...):** Egoera hau ez da erraza izaten, batez ere, eskolara datorren ikasle berriarentzat. Horregatik, gure eskolara ikasle berri bat etorriko dela dakigunean Harrera Plana jartzen dugu martxan. Plan horren bidez, ikasle berri hau zein egoeratik datorren, nondik datorren eta abarreko informazioa jaso ondoren, ikaslea integratuko den gela horretan enpatia lantzen duten hainbat jolas proposatzen ditugu (rol-playing-ak...). Izan ere, jolas hauen bitartez ikasle berri hori nola sentitu daitekeen eta egoera hori hobetzeko zer izan daitekeen lagungarria pentsatu eta sentitzen badugu, gure jarrera ikasle berri honekiko lagungarriagoa izango da beti. Horretaz gain, guk uste dugu kohesio zein kooperazio jolasak egitea oso lagungarria dela ikasle berria eskolatzen den lehenengo egunean.

Ikasturtean zehar eskolan (ikasgelan, jangelan, pasabideetan, autobusean...) sortzen diren gatazkak aprobetxatuz, rol-playing-ak antolatzen ditugu eta egoera hau bizi duten ikasleen sentimenduak, egoeran ematen diren jarrerak aztertu eta irtenbideak bilatzen ditugu denon artean, aurre-irritziak, errua egozteak saihestuz eta ikasle bakoitzak duen erantzukizunaz ohartaraziz.

Jarduera horietan irakasleak ez du gidoi-eredurik ja-

rraitzen eta galderen bitartez saiatzen da ikasleengandik egoera horren mamia azaleratzen momentu guztian errespetuzko jarrerak bultzatuz eta besteenganako leporatzeak berehala moztuz. Izan ere, jarduera hauetan ezin da inola ere onartu proposatzen den egoera hori pertsonalizatzea.

• **Ikasturte bukaeran ikasle bati hurrengo urtean maila berean gelditzeko aukera ematen zaionean:** Ikasturtea amaitu baino lehen tutoreak ikasle horrekin hitz egiten du eta bere erabakiaren berri ematen dio. Ikasle hau zein gelatan egongo den erabaki ondoren, ikasleak utziko duen gelan agurra emateko prestatzen dira, eta ikasle berria hartuko duen ikasgelan, ikasle berria hartzeko prestatuko dira. Horretarako, bada, rol-playing-ak, enpatia lantzen duten jolasak, talde kohesioa lantzeko jolasak oso tresna baliagarriak direla uste dugu.

• **Ikasturteari amaiera emateko:** Ezinbestekoa da ikasturteari amaiera ematea errespetuzko giro lasai batean. Horretarako, eta frogatu dugun bezala, ikasturtea modu oso politean bukatzeko aukera ematen dizu talde kohesioa lantzen duten jolasak ikasturte amaieran egiteak.

Saio baten deskribapena

Ikasleak bere lekuetan jarrita daudela isiltasun osoa lortu arte ez da saioa hasten. Saioaren azalpena emateko ikasleak biribilean esertzen ditugu. Askotan ikasle esertzeko modua neskak alde batetik eta mutilak bestetik jartzea izaten zenez, ikasleak adinaren arabera, eskuinetik ezkerreara, eta zaharretik gazteenera, biribilean ordenatzea erabaki genuen. Izan ere, adina izaten da denok berez onartzen dugun ordenatzeko

Saio bakoitzean gelako tutorea eta behatzailea egoten da. Azken figura hau ezinbestekoa dela iruditzen zaigu, ikasleen artean ematen diren mugimenduak behatzea baitu ardura nagusia

Jolas kooperatiboak oso tresna baliagarria dela uste dugu ikasleen arteko harremanak nolakoak diren ezagutzeko. Jolas kooperatiboan bidez ikasgelan harremanen erradiografia bat atera daiteke, eta hau bizitza etengabeko aldaketa dela ahaztu gabe, abiapuntu bezala hartu dezakegu gure jolasen programazioa egituratzeko

modua eta gainera eguneroko hezkuntza praktikak guztiak errespetatzen duten ordenamendua dela adierazten digu.

Ondoren, jolas kooperatiboak hasi baino lehenago, saioa behar bezala burutzeko bete behar ditugun arauak azaltzen ditugu (batez ere lehenengo saioetan):

- Denok parte hartu behar dugu.
- Ezin da minik egin (mina egiteko era ezberdinak aztertzen ditugu: fisikoak eta min emozionalak).

Saio horiek hainbat eratarik bukatzen ahalegintzen gara, bata izan daiteke mandala bat egiten, musika lasai batekin girotuta eta bestea erlaxaziozko ariketa bat proposatuta. Azkenik, eta ekintzari bukaera emateko, jolasean gertatu denaren inguruan hausnarketa egiten dugu, saioa gidatzen duen irakasleak ikasleei berriro borobilean jarri daitezela eskatzen die eta gogoeta hori galderen bidez aurrera eramaten da. Hausnarketa honen ardatza da eskaintzea ikasleei beraien eta biziki esperimendatu dituzten eta hainbeste kostatzen zaien sentimenduz hitz egiteko abagunea, eta une hori, hain zuzen ere, bertan bizi izan diren egoerei adostutako irtenbideak bilatzeko aprobetxatzen dugu.



Josune Etxaberen argazkia

Hezitzaileekin jolastea

Josune Igoa

InteRed-Kometa¹. Donostia

Helduekin jolastea

Harritzeko kontua gerta daiteke pertsona helduekin jolastea, are eta gehiago heldu horiek hezteko artean dihardutenean. Garapenarekin loturiko Intered-en gobernu kanpoko erakunde orain dela hamar urte hasi ginen hezitzaile, aisialdiko monitore eta, oro har, bestela jokatzeko edo jolasteko prest zeuden pertsona helduentzako jolas kooperatiboan lantegiak antolatzen. Geroztik, urtero-urtero bi lantegi antolatu izan dugu eta ia denetan bete egin dira, pertsona batzuk bertan parte hartzeko gogoz baina ezinean direla.

Zer esan nahi ote du horrek? Gertakariaren interpretazio oinarri bat hauxe izan daiteke: hezitzaile garenaz, gureganaino iristen diren haur eta gazteekin orain artekoa bezain lehiatsua izango ez den beste modu batez jolasteko bizipena izan dezaten nahi dugu, hainbat baliore helarazten dizkiegun bitartean.

Era kooperatiboan jolasteaz ari garela, lehen-lehenik jolasteaz ari gara, hots, gozatzeaz. Bigarren faseko galdara: nola disfrutatzen dugu, bakoitzak bere aldetik irabaziz edo bata bestearen lagunduz, gainerakoekin egin eta esaten dutenari adi, denok irabazle gertatzeko aukera emango diguten estrategien bila goazela, elkarrekin jolatu ere.

Hezitzaileekin jolastea

Hezitzaile alorrean bilduriko eskarmentuak diosku garrantzi handikoa dela helduen artean ere jolastea. Mo-

nitorekin, maiz, formazio-lantegi bat ebaluatzean honek diote: "Aspaldi ez nintzen jolatu berdinaren artean, gehienetan nire ardurapeko haur eta gazteekin aritzen naiz jolasean, eta, horrenbestez, ezin naiteke kokatu berdintasun mailan, arauak bete daitezela, elkarri min egin ez diezaioten eta antzekoak begiratu behar izaten dut beti."

Jolas kooperatiboek bere baitan potentzialtasun izugarria dute, gure iritziz: lanabes zoragarri, erraz, natural horrek bizitzaren zerbitzurako sakontasun handiko mezua biltzen ditu, hala nola, elkarrekin zerbait sortzea mesedegarriago eta aberasgarriagoa dela bizi izatea, gure artean komunikatzeko ditugun forma desberdinekin gozatzea, bata bestearen erritmoak errespetatzea elkar zapaldu gabe, den-denek daukatenik hoberena taldearen zerbitzura jarriko dutela jakinik...

Jolas kooperatiboan lantegi baten ebaluazioa egitean, emakume heldu batek aitortu zigun berak jasotako heziketa irabaztekoa izan zela baina jolastea gozatzeko aprobeitza zezakeela deskubritu zuela formazio lantegian ari zelarik. Emakume horrek zer pentsa eman zigun pertsona guztiei; ondo gustura egongo ginateke gure haur eta gazteekin beste horrenbeste pentsatuko balute. Badugu ingelesez, matematika eta beste hamaika ikasterik; jolasean arituz gero, seguru ikasiko dugu.

Zergatik jolatu, zergatik jolatu kooperatiboki?

Irabazteko presiopean ito orde, parte hartzeko atsegina sentitzeak tentsioak askatzen ditu. Jolas fisiko ba-

tzuek, gainera, energia asko askatzeko aukera ematen dutenez, lasaitu egiten dute jokalaria. Helduek jolasteko arauak ondo ulertzen berriaz zaintzen dugu. Arauak ondo ulertzen hirutan, lautan eta beste askotan ere errepikatzen diegu, beharrezkoa denean. Izan ere, helduok batzuetan ez dugu jolatu nahi izaten egin behar dena ulertzen ez dugulako, barregarri gertatzeko beldurrez. Horregatik errepikatzen dugu arauak ulertu behar direla eta norbera libre dela parte hartuko duen edo ez deliberatzeko. Jolas bat ez gustatzeki, min hartzeko beldurrak egoteko edo egun txarra edukitzeko eskubidea dugu... Jolasa, libreki eta borondatez hautaturiko gozatzeko jarduerak izan behar da; hortik bakarrik lagunduko digu partaideen arteko harreman harrigarri, mesedegarri, zintzoak eraikitzen.

Aukera izango al dugu "geure" proiekturik txertatzeko,

Hezitzaile garenaz, gureganaino iristen diren haur eta gazteekin orain artekoa bezain lehiatsua izango ez den beste modu batez jolasteko bizipena izan dezaten nahi dugu

gustukoa dugun hezkuntza-eredutik ahalik eta gertueko izaki, hurrei biharko munduan bizitzeko eta era-



InteRed-Kometa elkartearen argazkia

¹www.kometak.com

Gure seme-alabei jateko zernahi ematen ez diegun bezala, zeinahi jolas edo jostailu ere ez genieke eman behar. Gozatzeko, zoriontsu sentitzeko aukera emango dieten jolasak eskainiko dizkiegu: horrelakoetan umeei asmatu, sortu egiten dute, gainerakoekin berdintasunezko harremanetan jardun eta dinamika aberasgarrietan aritzen direlako

bakiak hartu ahal izateko benetako baliabideak emango dizkiena? Hein batean gurea izango den proiektu bat —umila, dudarik gabe, eta akastuna—, estimulagarria gure baitan ditugun balioen arabera: elkartzea, partekatzea, sormena, agian egiazko zoriontasuna, akaso justizia ere bai, edo demokrazia. Gure seme-alabei jateko zernahi ematen ez diegun bezala, zeinahi jolas edo jostailu ere ez genieke eman behar. Gozatzeko, zoriontsu sentitzeko aukera emango dieten jolasak eskainiko dizkiegu: horrelakoetan umeei asmatu, sortu egiten dute, gainerakoekin berdintasunezko harremanetan jardun eta dinamika aberasgarrietan aritzen direlako.

Esperientzia mesedegarriak heziketa zentro zenbaitetan

EAEko heziketa zentro batzuetan, lehen eta bigarren mailako hezkuntzan, jolas kooperatibo fisiko eta mahaikoak baliatzeko esperientzia gorpuztu dute, arazo edota liskarren bake-giroko konponbidea bilatzeko.

Nabarmendu diren aspektu lagungarrietako bat materiala izan da, faktore motibo-emaille den aldetik. Izan ere, mahaiko jolas kooperatiboetako batzuk biziki erakargarri, ikusgarri eta kalitadedunak dira. Hezitzaileek,

era berean, jolas fisikoen kasuan, gazte eta helduei baliabide gehiegi gabe jolasten ikasteko ematen zaien aukera balioztatzen dute. Era berdinean baloratzen da jolas horietako askok dakarten berritasuna eta agintzen duten mentalitate-aldaketa: fitxa guztiak denenak izateak, adibidez, ohiko dinamika indibidualista hautsi egiten du.

Baita zailtasunik ere

Kasuren batean, hezkuntza formalean bereziki, bigarren mailako ikasleekin jarduerak kooperatiboaren saioa egitearen aurrean irakasleak seguru ez daudela hauteman izan dugu, era desberdinetako arazoak direla medio: ikasleen ezaugarriengatik, jolas edo jokoa bera ez menderatzearen, "polizia" rola hautsita, jolas eta distentsio-saioa girotzera pasatu behar izateagatik. Irakasle batzuentzat zaila da klasean bertan jolastea eta, ondorioz, lanean aritzeko edo ikasleekin erlazionatzeko bi modu horiek uztartzea ere zaila gerta dakieke.

Zenbaitetan irakasleak prestakuntza pedagogiko mugatu edo erabat teknikoak baizik ez du. Era berean, ikaslearen motibazio eskasa ere atzeman izan da: berak nahitaez hartu behar du parte. Bestetik, curriculum alorreko desdoroak direla bide, helburuek alor akademiko hutsari gehiago heltzen diote, gutxieneko mailara iritsiko bada; horrelakoetan, balioetan heztearen aurretik ezagutzak eskuratzea lehenesten da. Beste batzuetan, egokiera zail eta delikatuak sortzen dira hamaika faktoreren ondorioz, hala nola ikasleen arteko harremanak, famili egoera bereziak, etc. Zailtasunak, era berean, talde handian jarduerak garatzeko: ikasle asko eta material urri, alegia. Ikasle-irakasleek, jolasaren alderdi ludiko hutsa aintzat harturik, hezteko lanabes gisa hartuko ez ote duten arriskua ere hauteman da.

Jolas kooperatiboek daukaten altxorra atzematea

Gipuzkoako hainbat eskola txikitik lanean diharduen aholkulari bati² galdetu nion zergatik erabili izan dituen urte askotan mahaiko jolas kooperatiboak. Eman didan lehen arrazoiak: "Denok disfrutatzen, haurrek eta nik". Hurrengo arrazoiak ere eman ditu:

- Elkarrekin jolastu eta elkarrekin helburua lortzeko, parte hartzen dutenen auto-estimazioa altxatzen du eta aniztasuna sustatzen du. Batak bestea lagunduz gero, bata eta bestea oso-oso desberdinak badira ere, bakoitzak izango du taldean bere tokia.

²Mila Esker, Itziar Mugika

• Mintzaira alorrean biziki mesedegarriak gertatzen dira jolas kooperatiboak. Jolasteko garaian hitz soilak ikasiz errazkiago ikasten dute euskaraz haur etorkinek.

• Ikasgelan sortzen den giroa harremanetan aritzeko eta ikasteko egoki-egokia da.

• Ikasle-irakasleek une magikoak bizi ohi dituzte.

• Haurren autonomia sustatu egiten da horrela. Jolasa ikasi eta jostatzen ikasitakoan, irakasleak badu beste-lako zereginetan edo arreta berariazkoagoan aritzeko betarik.

• Ikasle nagusiak txikiari irakats diezaioke; horrela ematen dizkion protagonismoak eta ardurak hazarazi egiten dio.

• Taldeko partaide bihurtzea, sormena eta denen ideien adierazpena sustatzen dira horrela.

Ikasgelan bertan eta hortik kanpoan jolas kooperatiboak baliatzen dituztenen gogoeta horiek entzun eta eskarmentua ikusirik, gai horren hezte-potentzialarekin saiakuntzak egitea merezi duelakoan nago. Hemendik, ene inbitazioa saia eta goza zaitzete horietan.



InteRed-Kometa elkartearen argazkia

Jolas kooperatiboen etxea

Intered elkarte partaide da nazioarteko garapenerako sare solidario batean, helburu duena bizimodu duinago bat. Sare horren barnean, jolas kooperatiboek hezkuntzan duten garrantzia sustatzen arduratzen da. Jolasaren bitartez hainbat balore zabal daitezke, besteak beste, lankidetzaren, kooperazioaren, tolerantziaren, komunikazioaren, gatazkak gainditzeko moduak bideratzea, auto-estimua eta auto-kontrola areagotzea...

Kometa, jolas kooperatiboen etxean, adin guztientzako (hiru urtetik hasi eta helduentzako ere) jolasak daude eskura. Jolas kooperatiboek dituzten ezaugarriak besteak beste hauek dira:

- Taldean jolatu egiten da eta partaide guztiek helburu bera dute; guztiek irabazten edo galtzen dute. Inor ez da kanpoan geratzen.
- Jolasaren erronka kanpoan dagoen elementu bat izango da (txapapotea, elur-jauziak, denbora...). Honen kontra egin beharko dute eta ez beste partaide baten kontra.
- Elkarrekin eta lankidetzaz jolastuz gero, irabazteko aukera gehiago dago.

Jolas kooperatiboen etxea, jolas ugari kontsultatzeko, sortzeko eta esperimentatzeko lekua da. Hauxe eskaintzen du:

- **Jolas kooperatiboko tailerrak:** Intered-kometako etxean edo beste elkarte, ikastetxe edo taldeen egoitzetan. Gehienetan formaziozko tailerrak helduei (guraso, irakasle, hezitzaile, aisialdiko begiraleei...) zuzenduta daude, baina antolatzen dira haurrentzako tailerrak ere, udal-programen bidez.

• **Hitzaldiak:** Jolasek eta bereziki jolas kooperatiboek haurrentzako hezkuntzan duten garrantziaz jabetzeko hitzaldiak.

- **Jolasen mailegua:** Pertsona edo taldeei zuzenduta. Bazkide eginez, maileguan har daitezke jolasak hamar egunerako.

- **Hezkuntza garapenerako proiektuak:** Beste GGKE baten lankidetzaren bitartez, "Lehen hezkuntzako solidaritatea eta kooperazio" eta "Elkartasuna eta Lankidetzaren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan" proiektuak antolatu dira. Jolas Kooperatiboetan oinarritutako gida pedagogikoak argitaratu dira.

- **Salmenta zerbitzua:** Jolas kooperatiboen etxean salgai daude jolasak. Jolas horiek Europatik ekartzen ditugu eta ez daude Euskal Herriko merkatuan. Kometa itzuli egiten dira arauak, euskarara eta gaztelaniara.

Helbidea


Intered- Kometa
Bengoetxea, 4
20004 Donostia

Informazioa

Tel: 943293847
E-maila: kometak@kometak.com



InteRed-Kometa elkartearen argazkia



m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA